



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2015EKO OTSAILAREN 26AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

Jesus Peñagarikano Labaka

Oihane Sarasola Nosellas

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko otsailaren 26an udaletxeko bilera-aretoan, eguadiako ordu batak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2015KO OTSAILAREN 10EKO AKTAREN ONARPENA**

2015ko otsailaren 10ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2015ko otsailaren 10ean eginiko Gobernu batzarraren akta

## **BIGARRENA:**



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2.- 2015EKO OTSAILAREN 23AN BURUTURIKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEKO AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU**

### **2.1 UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA**

Pleguak ez daude berrikusita beraz mahai gainean gelditzen da gaia

### **2.2 LOATZO MUSIKA ESKOLA: 2015EKO EKARPENA EGITEA ONARTZEA**

Ikusita, Loatzo Musika Eskolak 2015eko ekarpena aurkeztu duela.

Ikusita, aurtengo ekarpena 60.898,43 €koa dela

Ikusita, ekarpenaren ordainketa 4 zatitan aurreikusten dela:

- Martxoaren 10a baino lehen, lehen ekarpena: 15.224,61 €
- Ekainaren 10a baino lehen, bigarren ekarpena: 15.224,61 €
- Irailaren 10a baino lehen, hirugarren ekarpena: 15.224,61 €
- Abenduaren 10a baino lehen, laugarren ekarpena: 15.224,61 €

Ikusita, Ibarra udalak kreditu nahikoa duela bere aurrekontuan gastu honi aurre egiteko.

2015eko otsailaren 23an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea 60.898,43ko ekarpena Loatzo Musika Eskolarentzat 2015ean.

BIGARRENA: Bat egitea Loatzok proposatzen duen ordainketa moduarekin:

- Martxoaren 10a baino lehen, lehen ekarpena: 15.224,61 €
- Ekainaren 10a baino lehen, bigarren ekarpena: 15.224,61 €
- Irailaren 10a baino lehen, hirugarren ekarpena: 15.224,61 €
- Abenduaren 10a baino lehen, laugarren ekarpena: 15.224,61 €

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ematea Loatzo Musika Eskolari eta Kontu hartzailetza arloari.

### **2.3 D EREDUKO FESTAK: ARABA EUSKARAZ FESTARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ikusirik, joan den otsailaren 3an., Araba Euskarazek diru-laguntza eskaera aurkeztu duela.

2015eko otsailaren 23an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

BAKARRA: Ematea 800 €ko diru-laguntza Araba Euskarazi.

#### **2.4 UZTURPE IKASTOLA: GARBIKETARAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2.EN ZATIAREN KITAPENA ONARTZEA.**

Ikusirik, 220/2014 Alkate dekretu bidez, 20.000 euroko diru-laguntza eman zitzaiola Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibari garbiketarako .

Ikusirik, aipatu dekretuan diru-laguntza bi alditan ordaintzea erabaki zela.

Ikusirik, bigarren ordainaldiaren ondoren, Uzturpe ikastolak egindako gastuak kitatu behar dituela.

Ikusita, kitapena egoki aurkeztu duela, ordainagiri eta banku mugimenduekin.

2015eko otsailaren 23an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

BAKARRA: Onartzea Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibak garbiketarako aurkeztutako kitapena.

#### **2.5 TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA: 2015-2017 LANKIDETZA HITZARMENA**

Ikusita, Joan den abenduaren 9an, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak 2015-2017 urte arteko lankidetza hitzarmen proposamen bat aurkeztu zutela Udalean.

Ikusita, lankidetza hitzarmen horretan zera eskatzen dute: lehen urtean biztanleko 5€ bigarren eta hirugarren urtean KPIaren igoera eta ordainketa bakarrean egitea.

Ikusita, idazkaritzak gai horien inguruan adierazitakoa, eta jakinda udalak lankidetza hitzarmen horrekin aurrera egin nahi duela era egokian.

Ikusita, 2015eko urtarrilaren 26ko Euskara eta Hezkuntza batzordean gaia aztertzekeo mahai



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

gainean geratu zela.

Ikusita, gaia aztertu dela eta jada erabakia hartu dutela honen inguruan lan-taldean.

2015eko otsailaren 23an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Sinatzea 2015-2017 lankidetzaren hitzarmena Tolosaldeko Komunikazio Taldearekin.

**BIGARRENA:** Biztanleko 5€ko laguntza ematea 2015, 2016 eta 2017 urteetan.

**HIRUGARRENA:** Diru-laguntzaren ordainketa bi alditan egitea: %70 urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabetekoa epean, eta gainerako %30 urteko oroitidatzia eta faktura zuriketaren ondoren.

**LAUGARRENA:** Akordio honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari eta Kontuhartzaile arloari jakinaraztea.

### **HIRUGARRENA:**

### **3.- IBARRAKO KIROLDEGIKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA**

Guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Ibarra Udako Ibarra Udako Kiroldetxeko zerbitzua kontratatzeko esleipenaren plegu ekonomiko-administratibo eta teknikoak

**BIGARRENA:** Lehiaketa deialdia egitea, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarra Udako Kiroldetxeko zerbitzua kontratatzeko esleipena martxan ezartzea. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean iragarkia jartzea eta kontratazio profileen argitaratzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta pertsonal saileko administrariari.

## I-ERANSKINA

### **IBARRAKO KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ESLEITZEKO, LEHIAKETA BIDEZKO KONTRATAZIORAKO, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA.**

#### **1. KONTRATAZIOREN HELBURUA.**

Kontratazio honen helburua hau da: Ibarra udaleko kirol zerbitzuak antolatzen dituen jarduera eta ikastaroetako kirol zerbitzuak- sarbide kontrola, mantentzea eta kudeaketa nahiz koordinazioa barne-emateko adjudikazioa. Adjudikazio hori oinarri hauen arabera egingo da eta baldintza teknikoaren arabera, biek kontratuko izaera izanik.

#### **2.- KONTRATUAREN IRAUPENA.**

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da administrazio kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita, urtebeteko iraupena duten gehieneko bi luzapen egin daitezkeelarik, bi aldeak ados badaude eta kontratuaren iraupena, luzapena barne, ez da izango lau urte baino gehiagokoa, beti ere, kontratuaren salaketarik ez badago bi aldeetako batetik; horrelakoetan idatziz egin beharko da eta bi hilabete lehenago kontratua amaitu aurretik.

Luzapena kontratazio organoa eta enpresari adjudikazio-hartzaileak adostuko dute, eta bi aldeak ados egon ezean ezingo da burutu.

Bi aldeetako batek kontratua deuseztatzea eskatuko balu, betebeharrak ez betetzeagatik, eta udalak erabakia hartuko balu bere jatorria aitortua, adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematen jarraituko du, udalak egoki ikusiz gero eta lizitazio berri bat esleitu arte. Lizitazio berri hori gehienez sei hilabeterako izango da kontratua deusezteko udalak harturiko erabakiaren egunetik kontatzen hasita.

#### **3. LIZITAZIO PREZIOA.**

Zerbitzu horri dagokion adjudikazio mota honako hau da:

- \*Kudeaketa eta koordinazio zerbitzua: 40,26€ordua (BEZ barne)
- \*Sarbide kontrola zerbitzua: 34,44€ordua (BEZ barne)
- \*Mantentze zerbitzua: 38,98€ordua (BEZ barne)
- \*Kirol jardueren zerbitzua: 40,11€ordua (BEZ barne)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Kopuru hauen barne daude kontratuaren xedea den zerbitzua emateko gastu guztiak.

Aipatutako kopuruak, hobetu daitezke gutxituz, baina inola ere ezin dituzte lizitatuzaileek gainditu beren eskaintzak egiterakoan.

Aipatutako lizitazio kasuan, lizitatuzaileek egiten dituzten proposamenetan, eta lizitazioa esleitzen den kopuru zehatzean, beti barne ulertuko dira, ondorio guztietarako, ez bakarrik kontratu prezioak, baizik eta atal desberdinei ezartzen zaizkien zerga mota guztiak. Horrela egingo de BEZarekin, eskaintzen den prezioa ulertuko da BEZ barne duela.

Era berean, eskaintza ekonomikoaren barne ulertuko dira espedientea gauzatzeak dakartzan gastuak, notarioaren ordainsariak, hala badagokio, legez egin behar diren prentsako iragarkiak. Horiek guztiak, salbuespenik gabe, lizitatuzaileak eskaintza ekonomikoaren barne ulertuko ditu, eta inola ere ez gastu partida bat aparte bezala.

#### **4.- FINANTZAZIOA**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 110.2 art.an xedaturikoari jarraiki, kontratu honen esleipena baldintzatzen du kreditu egokia eta nahikoa izateak, 2015eko aurrekontu ekitaldian zehar sortzen diren betebeharreri erantzun ahal izateko.

Bada kontsignaziorik 2015eko Aurrekontu Orokorrean, honako partidan: 1.0000.227.341.00.04 “Kirol ikastaroen zerbitzuaren kontratua”, 30.000€ eta beste partida honetan: 1.0000.227.342.00.05 “kiroldegiko mantentze kontratua”, 120.000€ Beraz, kontratatu beharreko zerbitzuaren guztizko kostua estaltzeko, udalak Kreditu Aldaketaren Espedientean txertatuko du beharrezko zenbatekoa 2014ko Aurreko Orokorrean Kitapenean lorturiko Diruzaintzako Geldikinaren kargura.

#### **5.- ORDAINTZEKO MODUA**

Egindako zerbitzuen fakturazioa hileroko egingo da. Horretarako, enpresa adjudikazio hartzaileak faktura aurkeztu beharko du, behar den bezala xehatua, eta adieraziz emandako klase orduak, programaka, data, I.F.Z, faktura zk., zerga-oinarria, BEZ...

Faktura hori Udalak izendaturiko teknikariak gainbegiratuko du eta alkateak edo bere ordezkariak, baimenduko du

Ordainketa, egingo da indarrean dagoen legediaren arabera, zerbitzua ematen denetik eta enpresa adjudikazio hartzaileak jarritako kontu korrontean, beti ere aurrez dagokion faktura aurkeztu ondoren.

#### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Abenduaren 23ko 22/2013 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, bere laurogeita zortzigarren Xedapen Gehigarrian kontratu publikoen prezio berrikustea galarazten du, indize orokor edo horien formulak dagokienean.

Halere, agindu hau garatzen duen arauaren onarpenetik, bertan aurreikusten diren prezioen berrikuste formulak aplikatuko dira.

## **7. BERMEAK**

### Behin-behineko bermea

Ez dago.

### Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko hobereana aurkeztu duen lizitatuak, ezarritako betebeharrak betetze aldera, behin betiko bermea ezarriko du, hain zuzen, adjudikazio zenbatekoaren %5ari dagokiona (ordu prezioa bider kontratuko bi urteko orduak) BEZ sartu gabe.

Berme hori ezartzeko epea, hamar egunekoa izango da, behin-behineko adjudikazioaren iragarkia egiten denetik kontatzen hasita eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 96.1 art.an ezarritako edozein modutan ezar daiteke.

Bermea itzultzea, bai osoa bai zatia, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 102 art.an ezarritako moduren batean egingo da, behin berme epea igarota eta adjudikatzaileak kontratu betebeharrak guztiak bete ondoren.

## **8. KONTRATUAREN HIZKUNTZ IRIZPIDEAK**

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Beraz, kontratuaren ezaugarriek exijitzen dutenez beraz euskaraz gauzatzea, hori ziango da zerbitzu hizkuntza.

-Kasu guztietan bermatuko dira herritarren hizkuntza eskubideak.

- Administrazioarekin edo hirugarrenekin izandako harremanetan, kontratatutako enpresaren langileek bermatu beharko dute, beren hizkuntz gaitasunei dagokienez, administrazio



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

kontratzaileari exijitzen zaizkion antzeko baldintzak.

-Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

-Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.

#### **Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:**

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu Bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

-Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

-Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilia, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

### **9.KONTRATUA EGIKARITZEA.**

Kontratua gauzatzea kontratistaren arriskura egingo da.

Kontratua plegu honetan jasotzen diren baldintzei lotuta egingo da eta hala badagokio, espedienteari loturiko zehaztapen teknikoei, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean, beronek ahalmen hauek gauzatuko baititu idatziz nahiz ahoz.

Kontratistari edo honi loturiko pertsonari egotzi daitezkeen ekintza edo akatsengatik kontratuaren martxa eteten bada, Administrazioak beharrezko neurriak hartzeko agindu dezake, ordena berreskuratze aldera.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **10. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

### 10.1. Kontratista Udalaren aurrean.

- a) Kontratua jabego eskubidea mantenduz egingo da, hirugarren bat kalterik gabe, eta esleitutakoaren arrisku eta zorira.
- b) Udalak klausula hauetan ezarritako betebeharrak soilik beteko ditu, eta baita onartutako proposamenetik eratorri daitezkeenak ere.
- c) Kontratatik izango du ardura udalari nahiz hirugarren bati sor dakizkiekeen kalteez, zerbitzua ematerakoan.
- d) Zerbitzutik eratorritako gastu guztiak, zerga, kontratuko jardueren tasak, Balio Erantsiaren Zerga, esleipen aurrekontuan jasoak izango dira.

### 10.2. Kontratataren betebeharrak

Hauek dira kontratataren betebeharrak:

- a) Baldintza ekonomiko-administratiboen Pleguan eta Plegu teknikoan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ematea. Orduetgia errespetatu beharko du eta udalak berariaz emandako irizpideak jarraitu beharko ditu instalazioen zaintzan, tratu txukunean eta antolaketan.
- b) Taldekideei erabilera arauak betearazi beharko dizkie.
- c) Gimnasia lekua ireki eta itxi beharko dute eta tokia behar bezala garbituta utzi beharko dute klaseak amaitutakoan.
- d) Eginkizun hauek era gogobetekoan betetzea, bestela udalak aurretik jakinarazita, langileak aldatu behar ditu azkartasunez izendatuta.
- e) Ikastaroak eguneratzea jardueran geraldirik ez emateko.
- f) Ikasleak kontrolatzea Administrazio atalaren aldetik.
- g) Zerbitzua emateko behar diren langileak jartzea, berau era egokian emateko eta hutsegite, bajak... betetzeko.
- h) Behin betiko fidantza ezartzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- i) Zerbitzua pertsonalki aurrera ematea eta udalak emandako aginduak betez. Adjudikazio hartzaileak ezin ditu ez eman ez lekualdatu kontratuko eskubideak, udalak ez badio baimenik ematen. Horretarako beharrezkoa izango da kontratatzaile berriak, adjudikazio hartzaileari eskatutako baldintza, prestazio eta bermeak izatea.
- j) Ezingo ditu hobekuntzak edo aldaketak egin zerbitzuan, udalaren baimenik gabe, honek erabakiko baititu ekimenaren ondorio ekonomikoak.
- k) Adjudikazio hartzaileak ardura zibileko poliza bat kontratatu behar du, 600.000€koa.
- l) Kontratua sinatu eta bi hilabeteko epean, kontratistak agiriok aurkeztu beharko ditu:
- \*Langileen osasun gaitasunaren ziurtagiria, beren lanpostuko zereginak betetzeko.
  - \*Langileak jardueraren arriskuekin zerikusia duen formakuntza eta informazioa jaso dueneko ziurtagiria.
  - \* Lana burutzeko Banakako Babes Ekipoa jaso duteneko ziurtagiria.
  - \*Langileak sinaturiko agiria, non jasotzen den enpresa kontratatzailearen lanak burutzeko beharreko informazio eta jarraibideak jaso dituela.
  - \* Lana egingo duten langileen zerrenda.
- m) Plegu honetako zerbitzua emango duten langileek euskara jakingo dute hitz egiteko adina, eta lantaldeekin lehentasunez euskaraz arituko dira. Ezagutza hori bermatzen duen titulaziorik ez duten langileek udalak eska dakieke hizkuntza ezagutza egiaztatzeko dagozkion probak egitea.
- n) Udalak edozein unetan eska dakioke kontratistari edozein agiri enpresako legaltasuna frogatzearren bai arlo fiskalean, bai lan arloan, bai administratiboan....Udalak ezarritako epean aurkeztu beharko dira agiri horiek.
- ñ) Kontratistak izango du ardura zibil eta administratiboa udalaren aurrean, langileek egin ditzaketen hutsegiteez edo zuzendaritza teknikoko langileek egin ditzaketenez.Hirugarren bati eragindako kalteak konpondu behar ditu, zerbitzua ematerakoan utzikieriaz edo kulpaz aritzeagatik, hirugarren hori ondasunak, pertsonak, norbanako instalazioak edo udalekoak izan. Kontuan izan gabe, ezarri dakizkiokeen zigorrak.
- o) Esleitutako enpresak erreklamazio eta salaketa erregistro liburu bat eramango du. Bertan, jendeak edo udalak eginikoak jasoko ditu eta gutxienez hilean behin aurkeztuko da udaletxean
- p) Plegu teknikoan ezarritako beste betebeharrak.

### 10. 3. Kontratistaren eskubideak

Kontratistak eskubide hauek ditu:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- a) Esleitutako prezioa jasotzea, fakturazio ondoko hilabetean. Udala beharturik dago bere ohiko aurrekontuan kopuru hauek jasotzera.
- b) Kontratatik erabili ahalko ditu udalarenak diren ondasunak, zerbitzua emateko beharrezko badira.
- c) Udalak kontratistari oztopoetan lagunduko dio zerbitzua ematerakoan, eta beharrezko denean kontratistak udal agintariei eskatuko die laguntza hori.

#### 10. 4. Udalaren eskubideak.

Plegu honetatik eratorri daitezkeen beste batzuek gain, Udalak eskubide hauek izango ditu:

- a) Kontratatik kudeaketa fiskalizatzea. Beraz, egoki iritzitako ikuskapenak egin ditzake eta beharrezko aginduak eman zerbitzua egoki emateko, zerbitzu buruak emaniko epeak zehatz-mehatz betetz.
- b) Zerbitzua zuzenean kudeatuko balitz bezala, diskrezioz zuzentzea interes publikoak aholkatzen dituen aldaketak. Eta kontratatik aldetik erreklamazio eskubiderik gabe, gorabeherak kontratuaren oreka ekonomikoan eraginik ez dutenean, beti ere kontratazio administratiboan indarrean dagoen legediaren barnean.
- c) Udalak ondorioz gabe utzi dezake kontratua, bere iraunaldia amaitu baino lehen. Hori gertatuko da, interes edo agindu publikoko egoerek baldintzatzen badute, orduan kontratistari konpentsatuko zaio sortutako kalte ordainengatik.
- d) Baldintzen Plegu honetan jasotakoaren arabera, zigorrak ezartzea, egindako arau-hausteengatik.

### 11. SUBROGAZIOA

Kontratu hau subrogazio gai izango da Gipuzkoako titularitate publikoko kirol instalazioen lurralde hitzarmen kolektiboak (GAO 2010eko ekainaren 10, 108 zk) 41 art. an xedaturikoaren arabera; aurreikusita dago uzten duen enpresaren langileak subrogatzeko betebeharra, eta aplikagarri izatekotan II Eranskinean adierazten direnak dira. Esleipenduna behartuta dago agiri osagarriko lan harremanen enplegatzaile modura subrogatzera; SPKLTBaren 120 art. ak xedaturikoari jarraiki, informazio hau eskatzen duten lizitatzaillei emango zaie, lan kostuen ebaluazioa egin ahal izateko.

### 12. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK.

Kontratatik lan araudian jasotako legezko xedapenak beteko ditu, Gizarte Asegurukoak eta laneko segurtasun eta garbitasun arlokoak. Administrazioa betebeharrak hau ez betetzeagatik arduratik salbuetsita geratzen da.

Ibarrako Udalak agiri hauek eska diezazkioke esleipendunari: esleitutako zerbitzuak eskaintzeko kontratatu diren langileen alta-partearak, baja-partearak eta Gizarte Segurantzaren izandako aldaketak, Gizarte Segurantzari



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

ordaindutako likidazioen kopia (TC1 eta TC2 agiriak edo etorkizunean horien baliokideak izan daitezkeenak), eta enpresaren matrikula-liburua.

Ibarrako udalak ez du harreman juridikorik, laboralik eta beste inolakorik izango enpresa adjudikazio-hartzailearen langileekin kontratuak irauten duen bitartean, ezta bukatutakoan ere. Enpresa adjudikazio-hartzailearen eskura dira kontratu honetatik sorturiko betebeharrak, kalte-ordainak eta erantzukizunak guztiak. Ibarrako Udalak soilik izango du neurriak hartzeko ahalmena baldin eta enpresa esleipendunaren langileekiko harreman juridiko edo laboralak kaltea badakartza kiroldedgiak eman beharreko zerbitzuan.

### **13. KONTRATISTAREN ARDURA KONTRATUA BURUTZEAN HIRUGARRENEI EGINDAKO KALTEEZ.**

Kontratista izango da arduradun kontratua burutzean egin daitezkeen kalte eta galerez, horrela agintzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 214art.an.

Horretarako, eskaintza hoberena aurkeztu izanaren jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean, aseguru polizaren kopia eta ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko ditu. Aseguru poliza horren bermea 600.000€koa izango da gutxienez, kontratuari loturiko arriskuak estaliko ditu, eta bereziki hirugarrenei eragindako kalteengatik izandako ardura zibilari(orokorra, patronala eta gurutzatua); halaber, aseguruak estaliko ditu esleipendunaren langileek, haien menpekoek burututako egintzak, tresneria eta ekipoak eta esleipendunaren helburu den zerbitzuaren prestazioan egindako lanen ondorioz egindako kalteak.

### **14. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

13.1 Administrazioak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiengatik, aurreikusi gabeko arrazoiengatik, eta kontratistak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 105, 106, 107 eta 108 art.etan xedaturikoari kalterik gabe. Ondoko irizpideak ezartzen dira:

a) Xedeari dagokionez: Kontratua sinatutakoan, udalak aldaketak ezar ditzake zerbitzua osatzen duten elementuen interes publikoko arrazoiengatik, beti ere, beste behar batzuegatik edo ezusteko arrazoiengatik baldin bada. Kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango, ez badiote oreka finantzarioari eragiten. Administrazioak egindako aldaketek eragin ekonomikorik ez badute, kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango arrazoi horrengatik.

b) Zioei buruz: aldaketaren arrazoa izan daiteke zerbitzua arautzen duten baldintza teknikoetan jasotako edozein.

c) Ondorioei buruz: Aldaketa espedientearen arrazoituko da kontratuaren oreka ekonomikoaren mantentzea, eta hori mantenduko ez balitz, bideragarritasun plana berrikusi beharko da berau berreskuratze aldera.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

## **15.- ZABALTZEAK**

Emakidan zehar Ibarra udalak esleitutako enpresari eska dakioke eginkizun eta zerbitzuak zabaltzea, esleitutako datako eremuan ez daudenak, eta zerbitzua eman behar duenak ezingo dio uko egin.

Egiten diren zabaltzeek prezioen berrikustea ekar dezakete, behar bezala zurituz gero. Beti ere, plegu honetan jasotako prezioen zabaltzeagatik izango dira.

Zabaltzerik egingo balitz, eta plegu honetan jasotako irizpenen arabera eginak ez badira, udala eta esleitutako enpresaren artean adostutako prezioa ezarriko litzateke.

Kontratazio helburu diren zerbitzu eta eginkizunen zabaltzeak, urteko kanonean edo esleitutako prezioan aldaketa eragiten badute, material eta langileen zabaltzea ekarriko du, hauek esleitutako enpresaren esku izanik.

Zerbitzuaren edukian eginiko zabaltzeak Sektore Publiko Kontratuen Legearen 202 artikuluan xedatutakoa betez egin beharko da.

## **16. KONTRATISTARI ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK**

Kontratatari leporatutako arau-hausteak, kontratua ez betetzeagatik, plegu honetan ezarritakoaren arabera zigortuko dira eta arau-hauste horiek honela sailkatzen dira:

- Arau-hauste arinak
- Arau-hauste larriak
- Arau-hauste oso larriak

### **Arau-hauste arinak**

Kontratatari leporatutako arau-hauste arinak dira hauek: kontratuko zerbitzuak ematerakoan eskasiak daudenean, plegu honetako klausulak zuzenean betetzeari utzi gabe.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Zerbitzua ematerakoan eginbidean eta profesionaltasunean arau-hauste arina
- b) Udaltzak emandako aginduak behar bezala ez betetzea.
- c) Zerbitzuko material eta langileen garbitasun eza.
- d) Aurreikusitako ordutegiaren arabera, berandu hastea lanak. Kontratataren aldetik atzerapena bere beharrak betetzean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- e) Lanak gaizki egitea.
- f) Zerbitzuak emateko langile nahikoa ez izatea justifikatu gabe.
- g) langileek tratu eskasa edo atentzio eza ematea zerbitzuen erabiltzaileari edo auzotarrari orokorrean.
- h) Udalak emandako aginduak ez betetzea, bete gabe uztea hiru egunez, oso presazko ez direnean izan ezik.
- i) Udalaren ikuskapena oztopatzea, oztopatze hori sistematikoa ez denean.
- j) Kontratista edo bere langileek egin ditzaketan ekintzak, zerbitzuko materialaren egoera ona kaltetuz.
- k) Zerbitzua bertan behera uztea, arrazoi justifikagarriak, eta udalari horren berri eman gabe.
- l) Zerbitzuak hasterakoan egun bateko atzerapena, arrazoi nagusirik gabe.
- m) Zerbitzuak ematerakoan behin eta berriz atzeratzea (udalaren idatzizko hiru oharpen baino gehiago )
- n) Zerbitzuak ematerakoan etenaldi edo etenak.

**Arau-hauste larriak**

Kontratatari leporatutako arau-hauste larriak dira hauek: kontratuko zerbitzuak ematerakoan eskasiak daudenean, plegu honetako klausulak zuzenean betetzeari utziz.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Zigor arinei bide ematen dioten ekintzak burutzea kontratistak.
- b) Zerbitzuko materiala zuritu gabe baliogabetzen duten ekintzak.
- c) Zerbitzuen erabiltzaile diren auzotarrei tratu ez egokia ematea, edo ahoz nahiz ekintzez iraintzea kontratistaren langileek.
- d) Udalak emaniko erabaki edo akordioak ez betetzea, zerbitzuen aldaketan, esleitutako enpresari gasturik ez dakarkiotenean.
- e) Udalak emandako argibideak ez jarraitzea, zerbitzua ematerakoan hutsegite bat denean. arrazoi nagusirik egon gabe.
- f) Kontratuan adierazitako zerbitzua egun batez, osoki edo partzialki ez ematea.
- g) Kontratistak hilabete batez, bere lan eginkizunak ez betetzea eta ezta bere langileen Gizarte Segurantzako betebeharrak.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- h) Udalak emandako aginduak ez betetzea, presazkoak direnean, edo bi egun igarotzea ohiko agindu bat bete gabe.
- i) Zerbitzuetan aldaketak sartzea inolako baimenik gabe.
- j) Ordutegiaren arabera, berandu hastea lanak ( arinak diren hiru arau-hauste baino gehiago)
- k) Kontratuan adierazitako zerbitzua egun batez, osoki edo partzialki ez ematea,
- l) Zerbitzuak ematerakoan iruzur, eskainitako lanari ez dagokionean.
- m) Udalak idatziz emandako aginduak ez betetzea, kontratuaren arabeko zerbitzuari dagozkionak.
- n) Enpresa kontratatuak edo bertako langileren batek ordainsari, kanon edo graziaren bat jasotzea zerbitzuetako erabiltzaileen aldetik, baimendu gabe egonik.
- ñ) Osasun aginduak ez jarraitzea edo udalak emandako aginduak ez betetzea, egoera ez osasuntsuak , arriskutsuak edo auzokideentzat nahiz langileentzat gogaikarri diren egoerak saihesteko.
- o) Udalak emandako ohiko agindu bat bete gabe bost egun baino gehiago igarotzea.
- p) Zerbitzua ematerakoan egin daitezkeen arau-hauste edo irregulartasun oro, baldintza pleguan jasotakoaren arabera.
- q) Zerbitzu emailearen aldetik, arau-hauste arinak behin eta berriz egitea

**Arau-hauste oso larriak.**

Arau-hauste oso larriak izango dira zerbitzuaren kudeaketa arriskuan jar dezakeen ekintza oro edo erabiltzaileen interesak urratzen dituen, kontratuaren erabakiak zuritzen duenean. Oso larriak dira , era berean, kontratuaren edo bere zati baten titulartasuna ematea, plegu honetako baldintzak bete gabe.

Oso larriak dira, halaber, urtean hiru arau-hauste larri izatea, edo bost arte bi urtean. Honakoak ere badira arau-hauste oso larriak:

- a) Emakidadunak dituen oinarrizko beharren hutsegite larria.
- b) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- c) Plegu honetako baldintzetan ez jardutea.
- d) Zerbitzua etetea edo etenaldiak egitea, arrazoi nagusirik gabe.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

e) Zerbitzuetako langileen gizarte segurantzako eta laneko betebeharrak ez betetzea.

### **17.-ZIGORRAK.**

- Arau-haustek zigortuko dira beren izaeraren arabera:
- Arau-hauste arinak, 300,00tik 1.200,00 €arteko isunekin.
- Arau-hauste larriak, 1.200,00tik 6.000,00€arteko isunekin.
- Arau-hauste oso larriak, 6.000,00tik 30.000,00€arteko isunekin

### **18.-ZIGORTZE PROZEDURA.**

1. Alkatea izango da isuna ezartzeko eskuduna. Prozeduran kontratistak entzunaldia izango du.
2. Isuna formalizatu ondoren, zenbatekoa hurrengo ziurtagiritik kenduko da. Halere, kontratistak egungo legeak jasotako errekursoak aurkez ditzake.
3. Udalak, isunen zenbatekoa kontratua formalitzean utzitako fidantzatik ken dezake.

### **19. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 223 eta 308 art.etan jasotakoak.

### **20. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Administrazioaren eskumenen artean daude kontratua interpretatzea, bere betebeharrak sorten dituen zalantzak argitzea, interes publikoagatik aldatzea, bertan behera uztea eta honen ondorioak aztertzea, beti ere Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ezarritako mugetan eta Herri Administrazioetako Kontratuen legearen Erregelamendu Orokorrek ezarritakoen mugetan.

## **II. KONTRATZATZEKO PROZEDURA**

### **21.ADJUDIKAZIO PROZEDURA**

21.1 Kontratu honen adjudikazioa prozedura ireki bidez egingo da.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Hauek dira eskaintzak baloratzeko irizpideak, kontratuaren oinarri izango direnak, beherakor garrantzi mailan eta ematen zaien haztapenarekin:

**1. Eskaintza ekonomiko: 50 puntu.**

Plegu honetako eskaintza ekonomikoa hobetzea: zerbitzu bakoitzean ezarritako gehienezko prezioa jaisteagatik: 0,25 puntu 0,08 euroko, gehienez ere 50 puntu.

Irizpide hau aplikatuko da lau zati berdinetan zatituta puntuazioa eta era honetan: lizitazio oinarri diren 4 helburu bakoitzeko 12,50 puntu ( instalaziorako sarbide kontrola, instalazioa mantentzea, kiroldegiaren kudeaketa eta zuzendaritza eta kirol jarduerak.)

**2. Zerbitzuaren proiektu tekniko eta kudeaketa proiektua: 30 puntu.**

- Antolakuntza proiektu egokia.
- Jarduera fisiko eta kirolletako eskaintza.
- Mantentze zerbitzua.
- Kiroldegiko kudeaketa eta zuzendaritza plana.
- Udalarekiko komunikazio plana.

**3. Giza bitartekoak: 15 puntu.**

Langileen zereginen zehaztapena baloratuko da, eman beharreko zerbitzuaren antolakuntza, formazio plana, ordezkatze plana...

**4. Berdintasun plana: 5 puntu.**

**22.KONTRATATZEKO GAITASUN ETA KAUDIMENA.**

Kontratazio Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun juridikoa duten pertsona natural nahiz juridikoen, beren kaudimen ekonomiko, finantzario tekniko edo profesionala izan eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak 49 art.an ezarritako kontratatzeko debekuetan ez daudenak. Kaudimena egiaztatuko da 17 klausularen e) letrak ezarritako bitartekoen arabera.

Halaber, beren kabuz edo horretarako gaitasun nahikoa duen baimendutako pertsonak ordezkatuta egin dezakete. Pertsona juridiko baten ordezkaritza gisa bertako kide bat aurkezten bada, horretarako gaitua dagoela dioen egiaztapena aurkeztuko du. Batean nahiz bestean, aipaturiko kontratatzeko ezintasun zioek erasaten diote ordezkaritari.

Lizitatuzaileek, gainera, helburu izango dute kontratuaren xedearekin harremana duten jarduerak burutzea, eta pertsona nahiz material nahikoak osaturiko antolakuntza izatea kontratua exekutatzeko.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Enpresariak, halaber, jarduera edo kontratu honen helburua gauzatzeko beharrezko den enpresa gaitzea edo lanbidekoa izango dute.

### **23. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen espedientea eta agiri teknikoak Ibarra Udaltxean ikus daitezke, goizeko 9etatik 14ak arte, egunero eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

Agiri horiek aipatutako toki eta orduetan aurkeztuko dira, hogeita sei egun naturaleko epean, iragarkia ateratzen denetik kontatzen hasita.

Epea larunbat edo jai egunetan bukatuko balitz, hurrengo lanegunetan aurkeztu ahalko dira eskaintzak.

Lizitazio hau ondorengo Web orrian emango da argitaratuta: [www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net), eta hor ikusi ahalko dira pleguak eta dokumentazio osagarria.

Plegu edo agiri osagarrien informazio gehigarria, lizitatuzaileek eskatzen badute proposamenak onartzeko epearen aurreko sei egunetan emango zaie. Horretarako proposamenak onartzeko epea baino zortzi egun lehenago egin beharko da eskaera.

Epearen ondoren aurkezturiko proposamenak, ez dira onartuko nahiz eta Postetxean epea amaitu baino lehen entregatu zirela egiaztatu, salbu Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo korreo elektronikoz bidaltzen ez zaion bidalketa egunaren egiaztageria, korreoz bidali zen egun berekoa. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzen bada, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80.4 art. an xedaturiko aintzat hartuta egingo da.

Lizitatuzaileek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C) eta bakoitzean honako izenburu hau agertuko da: “Ibarra Udala kiroldagiko zerbitzuak esleitzeko lehiaketan parte hartzeko proposamena”

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen eta abizenak eta zer nolako izenarekin egiten duen azaldu beharko du eta bi gutun-azalak sinatuta egongo dira.

“A” gutun-azala izen hau eramango du: “KONTRATATZEKO GAITASUN ETA KAUDIMENA” eta agiriok izango ditu:

- a) Parte hartzaile edo honen ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Beste pertsona edo entitate baten izenean ari bada, gainera, notario ahalmena.
- b) Kontratazio mahaiak eta organoak komunikatzeko erabiliko duen helbide elektronikoa



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

c) Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura Merkataritza-Erregistroan izen emanda eta nortasun fiskalaren zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legearen arabera izen ematea derrigorrezko denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eskritura edo eraketa agiri bidez, estatutu edo fundazio egintza bidez, eta bertan azalduko dira jarduera arautzeko arauak, inskribatuak, hala badagokio, dagokion Erregistro ofizialean. Europar Batasuneko kide diren nazioetako enpresari ez espainiarrak baldin badira, beren inskripzioa egiaztatuko dute, ezarrita daudeneko estatuen legeriarena arabera, edo zinpeko aitorten edo egiaztagiri baten bidez, aplikagarri zaizkion komunitetako xedapenekin bat etorrituz.

d) Enpresa atzerritarrek beren jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute SPKLaren Erregelamendu Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, 9 eta 10 art.etan ezarritako moduan.

e) Sektore Publikoko Kontratuen Legeren Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 60 art.an zerrendaturiko Kontratatzeke ezintasunen artean ez dagoela dioen aitortpena (I ERANSKINA). Hor jasoko da zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean dagoela dioen agiria, bi baldintza hauen ziurtagiriak egiaztatzen ez badira behintzat.

f) JEZan alta ematearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Ohiko ekitaldiari dagokiona bada, alta aurkeztuko da edo JEZaren azken ordainagiria. Bestelako kasuetan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren aitorten arduratsua.

g) Lizitatuzailearen Kaudimen ekonomikoa eta finantzariora egiaztatzeke bide hauetakoren bat edo batzuk erabil daiteke:

a) Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Erregistro ofizialetan kontuak aurkeztera behartuta ez dauden enpresariak kontabilitate liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legezkatuta.

b) Negozioen bolumen osoaren aitortpena eta, kasua bada, kontratuaren xede diren jardueri dagokien negozio bolumena. Aitorten hori gehienez azken hiru ekitalditakoa izango da, sortu zenetik edo enpresariak jarduerak hasi zituenetik kontatzen hasita, beti ere, negozio bolumen horren erreferentziak baldin badaude.

h) Enpresarien kaudimen tekniko edo profesionala beren ezagutza teknikoa, eskarmentua eta fidagarritasuna kontuan izanda baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanen zerrenda; bertan jasoko dira zenbatekoa, data eta jasotzaile publiko nahiz pribatua. Egindako zerbitzu edo lanak eskumeneko organoak sinatutako asebetetze txostenen bidez egiaztatuko dira.

i) Lizitatuzaile asko, Aldi Baterako Enpresa –Elkartea osatuz aurkezten badira, bakoitzak egiaztatu beharko du aurreko ataletan azalduetako gaitasun eta kaudimena eta horrez gain konpromisoa formalki Aldi baterako Enpresa-elkartea osatzeko adjudikazio-hartzaile suertatuz gero. Proposamenean, horrez gainera



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

elkartearen alde bakoitzak kontratuko zein zati beteko duen argituko dute, bakoitzaren kaudimen baldintzak aztertze aldera.

j) Atzerriko enpresen kasuan, edozein eratako espainiar epaitegi eta auzitegiren menpe jartzeko aitortza, kontratutik sor daitezkeen edozein gorabehera argitzeko. Hala badagokio, lizitatzailerari dagokion atzerriar jurisprudentziari uko egingo lioke.

Aurreko e) eta f) ataletan adierazitako baldintzak egiaztatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen erregistro Ofizialeko egiaztagiri baten bidez edo SPKLaren 73 art.ak xedaturiko komunitate egiaztagiri bidez. Azken kasu honetan egiaztagiriarekin batera lizitatzaillearen aitorten arduratsua aurkeztuko da eta bertan adieraziko da egiaztagirian jasotako baldintzek ez dutela aldaketarik zian.

“B” gutun-azalak azpтитulu hau eramango du: “ ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK”, eta agiriok izango ditu:

- a) Eskaintzak baloratzeko irizpideak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak. Horian artean, plegu honetako 20 klausulan ageri direnak eta batez ere memoria teknikoa, non zerbitzuan erabiliko diren tresneria, materialak eta material ekologikoak lehenetsita. Egin beharreko lanen zehaztapena eta zerbitzuaren antolaketa.

Eskatzen diren agiriak jatorrizko agirien bidez edo kopia bidez aurkez daiteke, administrazio edo notarioak behar bezala konpultsatu edo kautotua.

Memoria teknikoa ez aurkezteak lizitatzaillea bazterrean uztea ekar dezake.

- b) Lizitatzailleek beren proposamenetan aldaketa edo aukerak sar ditzakete kontratuaren xedea hobetzeko asmotan.

Gutun-azal honetan ez da sartuko proposamen ekonomikoa, hori “C” gutun-azalean sartu behar baita.

“C” gutun-azalak azpтитulu hau eramango du: “ PROPOSAMEN EKONOMIKOA”, eta agiriok izango ditu:

- a) Ondoko ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.

“ -----Jn/and,-----bizi denak,-----PK-----NAN zk.-----  
-----Tfn,-----Faxa, -----e maila , gaitasun bete eta juridikoarekin,bere izenean/ edo



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

-----ren izenean,-----helbidearekin,-----PK-----  
Tfn-----I:K.F zk.(pertsona fisiko edo juridikoa den) Ibarra Udalak, Kiroldagiko zerbitzua  
kontratatzeko deitu duen lehiaketaren berri izanda, aitortzen dut:

1) Kontratua emateari dagokionez, bera gauzatzeko hitz ematen dut, ondoren aipatzen diren prezioetan:

- . Kiroldagiko kudeaketa eta zuzendaritza zerbitzua: .....€ordua +.....€(BEZ)
- . Mantentze zerbitzua: .....€ordua +.....€(BEZ)
- .Sarbide kontrol zerbitzua: .....€ordua +.....€(BEZ)
- .Kiroldagiko zerbitzua: .....€ordua +.....€(BEZ).

Prezio horren barnean daude gastu guztiak, zergak, tasak eta edozein ariel fiskal, baita kontratistaren industria irabazia ere.

2) Kontratu hau zuzenduko duten preskripzio teknikoan, Administrazio-baldintza partikularren Plegua , eta gainerako dokumentazioaren berri badudala, neure gain hartzen ditudala eta bere osotasunean bete.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela egungo araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak, irekitzeko, kokatzeko eta jarduteko.

-----a)n-----e)ko-----a(re)n-----n)

Sinadura”

Gutun-azal honetan ez dira sartuko balorazio egin beharreko adjudikazio irizpideei buruzko agiriak, horiek “B” gutun-azalean sartu behar baitira.

Datu horiek “C” gutun-azalean sartzen badira ez dira baloratuko, eta soilik prezioari loturiko adjudikazio irizpideari dagozkion puntuak esleituko zaizkio.

Kontratazio honen espedientea eta agiri teknikoak Ibarra Udaletxean ikus daitezke , goizeko 9etatik 14ak arte, egunero eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Agiri horiek aipatutako toki eta orduetan aurkeztuko dira, hogeita sei egun naturaleko epean, iragarkia ateratzen denetik kontatzen hasita.

Plegu edo agiri osagarrien informazio gehigarria, lizitatzailleek eskatzen badute proposamenak onartzeko epearen aurreko sei egunetan emango zaie . Horretarako proposamenak onartzeko epea baino zortzi egun lehenago egin beharko da eskaera.

Epez kanpo aurkezturiko proposamenak, ez dira onartuko nahiz eta Postetxean epea amaitu baino lehen entregatu zirela egiaztatu, salbu Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo korreo elektronikoz bidaltzen ez zaion bidalketa egunaren egiaztagiria, korreoz bidali zen egun berekoa. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzen bada, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80.4 art.an xedaturiko aintzat hartuta egingo da.

## **24. KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: alkatea edo eskuordetzean emandako zinegotzia.
- Udaleko idazkari orokorra
- Udaleko kontu-hartzailea .
- Talde politiko bakoitzeko ordezkaria
- Langile Batzordeko administraria.

## **25. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESAN AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.**

Behin proposamenak aurkezteko epea amaituta, mahaia denbora eta forman jasotako agiriak kalifikatuko ditu ("A" gutun-azala) horretarako herri administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 81 art.an eta jarraitukoetan xedaturikoa jarraituz.

Horretarako, lizitatzailen gaitasun eta kaudimenaren inguruko agiri osagarriak eska daitezke eta horiek 5 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, horrela agintzen baitu erregelamenduaren 22 artikulua. Informazio osagarria eskuratzeko eskaera Mahaik zuzenean egongo die interesdunei eta Kontratazio Organoaren iragarki ohelean eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da .Era berean Mahaia zuzen daitezkeen akatsak daudela jakinaraz ahalko du eta 3 egun baliodunen epean lizitatzailleek euren akatsak zuzendu ahalko dituzte.

Mahaia, behin aurkezturiko, eta akatsak baleude zuzenduriko agiriak, kalifikatu ondoren, aukeraketa irizpideetara - plegu honetako 18 klausulan adierazitakoak- egokitzen diren enpresak zehaztuko ditu . Horrez gain lizitaziora onarturikoak eta onartu gabeak eta hauen arrazoiak adieraziko ditu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Aurkeztutako eskaintzak (“B” gutun-azala) jendaurrean irekiko dira proposamenak kontratatzailearen profilean argitaratutako egunean, korreoz bidalitakoen kasuan izan ezik, horietan Herri administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak xedaturikoa hartuko baita kontuan.

Ondoren proposamenak baloratu eta sailkatuko dira, beherakor ordenan eta 21 klausulan ezarritako irizpideak aintzat hartuta, eta dagozkion txosten teknikoak aztertuta.

Aurkeztutako eskaintzak (“C” gutun-azala) jendaurrean irekiko dira proposamenak, kontratatzailearen profilean argitaratutako egunean, korreoz bidalitakoen kasuan izan ezik, horietan Herri administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak xedaturikoa hartuko baita kontuan.

Txosten teknikoak egin ondoren, Kontratazio mahaiak eskaintza ekonomiko hoberenaren proposamena egingo dio Kontratazio organoari.

## **26. ADJUDIKAZIOA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK**

Kontratazio organoak kontratuaren behin-behineko adjudikazioa egitea erabakiko du, proposamen ekonomiko hobereana egin duen lizitatzailerari; eta, hamar egun baliiodunen epean, eskaera egiten zaion hurrengo egunetik kotatzen hasita, behin-behineko adjudikazio-hartzaileak ondorengo jardunbideak egin beharko ditu:

- a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela dioen egiaztagiria aurkeztu, proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu. Horrez gain, kontratua gauzatzeko jarritako bitartekoen egiaztagiria.
- b) Kontratura lotzeko konpromisoa hartu dituen bitartekoak egiaztatzea, SPKLaren Testu Bateginak 64.2 art. an ezarritakoari jarraiki.
- c) Behin betiko bermea eratzeko, eta hala behar izanez gero, berme osagarria.
- d) Aseguru polizaren kopia

Jarritako epean jarduketak burutu ezean, lizitatzailerak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta dokumentazio berdina hurrengo lizitatzailerari eskatuko zaio, eskaintzetan geratu diren hurrenkerari jarraituz.

Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du 5 egun baliiodunen epean, aurreko 10 eguneko epea amaitzen denetik kontatzen hasita, beti ere lizitatzailerak agiriak aurkeztu baldin baditu eta behin betiko bermea ezarri badu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

SPKLak 155 artikuluan xedaturikoa aintzat hartuta, kontratuaren ezestea edo prozedura honen atzera egitea gertatuko balitz, lizitatzailerai lizitazioak eragindako gastuak Administrazio honek zehaztuko du haien entzunaldi eta arrazoiketaren ondoren.

Esleipendunari eskatuko zaio kontratua sinatzeko bost egun baino lehenago, eskaera egiten zaionetik kontaktzen hasita.

Kontratua agiri administratibo bidez egingo da eta ezarritako epean jardunbide hauek burutu beharko dira:

- a) Iragarki ofizialeko gastuak ordaindu, hala baleude, buletin bakarrean eta behin bakarrik.
- b) Administrazioaren aurrean kontratua formalizatu agiri administratibo bidez.
- c) Antolakuntza prebentiboaren ereduaren ziurtagiria.
- d) Jardueraren arriskuen ebaluazioa.

Kontratistari egotzi beharreko arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen, Administrazioak erabaki dezake behin betiko bermearen gaineko behin-behineko bermearen zenbatekoa kentzea.

Kontratazio organoaren eta enpresa lizitatzaileraren arteko komunikazio guztiak “A” gutun-azalean adierazitako helbide elektronikoko bidez egingo dira.

Behin kontratua esleitu ondoren, bi hilabeteko epea emango zaie esleitu ez diren lizitatzailerai, aurkeztu duten dokumentazioa jasotzeko.

Behin epe hori igarota eta dokumentazioa ez badute jaso, berau suntsitu egingo da.

### **III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKO ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA**

#### **27. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Plegu honen arabera eginiko kontratuak, izaera administratiboa izango du eta bertan jasota ez dagoen guztiari dagokionean, ondorengo legeek xedaturikoa aplikatuko zaio: urriaren 30eko 30/2007 Sektorre Publikoaren Kontratuei buruzkoak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartuak eta Herri administrazioetako kontratazioan aplikagarri diren gainerakoak.

Baldintza Administratibo Berezi hauen eta espedienteari oturiko gainerako agiri teknikoaren artean kontraesanik balego, Plegu honetan adierazitakoak izango du indarra.

#### **28. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuetara jotzea eskatzen badu, kontratistak, SPKLaren hogeita hamaikagarren Xedapen Gehigarriak ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, hain zuzen Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 legeak eta bere garapen araudiak ezarritakoa.

## **29. ESKUMENENKO JURISDIKZIOA**

Kontratutik eratorriko auzigaiak administrazio-auzietarako jurisdikzioak ebatziko ditu; halere, aldeek beren auzigaiak tartekaritzaz konpon ditzakete, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

## **IBARRAKO KIROLDEGIKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

### **1.- ZERBITZUAREN HELBURUA.**

Kontratazio honen helburua da honako zerbitzu hauek esleitzea:

#### 1) Kirol jarduera eta ikastaroak ematea:

Hemen sartzen dira honako jarduera hauek: Spinning gazteak, Multifitness, adinekoen mantentze gimnasia, uda kanpaina(uztaila), pilates, yoga, Tai-Chi, Bosu-Gap eta eman daitekeen beste edozein ikastaro.

#### 2) Sarbideen kontrola: Pertsona bat enkargatuko da atearen zerbitzuaz eta honako hauek beteko ditu:

- Kiroldegiko sarbide kontrola eramatea.
- Uraren kloro eta ph neurriak kontrolatzea.
- Tresneriaren mantentze puntualak egitea.
- Kiroldegiko erabiltzaileei arreta egitea.
- Instalazioak erabiltzeagatik dagozkion tasak kobratzea.
- Egunaren amaieran likidazioak egitea.
- Instalazioen mantentze puntualak egitea.
- Garbiketa lan puntualak egitea.
- Abonatuen altak, bajak eta aldaketak jasotzea.
- Ikastaroa egiten dutenen altak eta bajak egitea.
- Deiak eta objektu itzuliak jasotzea.
- Instalazioen mantentze enprekin koordinatu eta beraiei abisua eman matxura dagoenean.
- Alarma,sartze eta sute sistema kontrolatzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- Mantentze langileei laguntzea instalazioko zuzendariak hala eskatzen duenean.
- Mantentze langileari ohartaraztea instalazioan dagoen edozein akatsez.
- Larrialdietara joatea eskatzen zaion egun eta orduan.
- Agintzen zaion eta bere mailari dagokion beste edozein eginkizun burutzea, aldez aurretik erakutsita.

3) Instalazioen mantentzea: lehen mailako ofizial batek egingo du eta bere eginkizunak plegu honi erantsirik doan taulan zehaztuko dira, I eranskinean.

4) Instalazioen kudeaketa eta koordinazioa: enpresak enkargatu bat jarri beharko du, instalazioaren funtzionamendu onaz eta udalak enpresari agintzen dizkion kudeaketa zereginaz arduratuko dena .

Instalazioen koordinatzaile zerbitzua eta sarbide kontroleko zerbitzua elkarren artean koordinatuko dira ez daitezela gainjarri, koordinatzaileak sarbidekoarekin bilera egin behar duenetan izan ezik.

Hauek izango dira bere zereginak:

- Kirol jarduerak eta programa diseinatzea eta planifikatzea.
- Jardueren jarraipena eta ebaluazioa.
- Kiroldegiko espazioa antolatzea.
- Elkarte eta kolektiboek egiten duten erabilera kudeatzea.
- Elkarte eta taldeek eginiko eskabideak kudeatzea.
- Kiroldegiko ekipamendu nahiz materialaren zaintza eta jarraipena: aurrekontuak eskatzea apurketak daudenean, aldatu beharrekoa baloratzea, hobekuntzak aurkitzea.
- Azpikontratatu diren enpresen jarraipen eta kontrola.
- Kudeaketa ekonomikoa “Hobetzen” saiatzea: azpikontratatuakoen prezioak aztertu eta aurrekontu berriak eskatuz horiek gutxitzea.
- Administrazio lanak: abonatuaren altak eta bajak, kobraketa-sortak.
- Kiroldegiko udal ordezkariarekin bilerak egitea.
- Erabiltzaileen kexei eta eskaerei erantzutea eta udalera bidaltzea.
- Ohiko horniketen eskaerak egitea (udalak ezarritako gehienezko aurrekontuarekin edo haren onarpenarekin: garbiketa produktuak...)
- Kiroldegiko dinamizazioa: ikastaroen publizitatea egitea (bitartekoak aztertu, aurrekontuak eskatu...) abonatu berriak erakartzeko kanpainak aztertu eta egitea.
- Zerbitzu berriak eskaintzeko aukerak aztertu: zerbitzu motak, modua, bitartekoak, aurrekontua, azterketa ekonomikoa...
- Kudeaketaren jarraipena: abonatu kopurua, parte-hartzaile kopurua ikastaroetan, asebetetze maila.
- Kiroldegiko gainerako langileen kontrol eta jarraipena.

## **2.- KIROLDEGIA IREKITZEKO ETA IXTEKO ORDUTEGIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kiroldegiko instalazioak ondorengo taulan ager idiren orduetan izango da irekita. Udalak urtero onartuko du lanegun eta jai egunen egutegia.

<b>2015</b>	Goizez	Arratsaldez
Astelehenetik ostiralera (ostegunak izan ezik)	08:00-13:00	15:00-22:00
Ostegunak	08:00-13:00	15:00-22:30
Larunbata (itxita ekain eta uztailean, ekaineko lehen larunbata izan ezik)	08:45-13:15	15:00-21:00
Igande eta jai egunak	Itxita	
Abuztua	Itxita	

### 3.- ZERBITZUA EMATEKO MODUA

Emakidaduna, eman behar duen zerbitzuaren arabera, ondorengo ezaugarrietara egokitu beharko da:

Kirol jardueri dagokionez:

Plegu honetako 1)lehen klausulan adierazitako kirol jarduerak era honetara egingo dira:  
Ikastaroen ordutegia sortzen diren taldeen arabera izango da eta ikastaro bakoitzeko gutxieneko eta gehienezko ikasle kopurua ezarriko da, Ibarra udalak ezarritako irizpideen arabera.

Ordutegiak, osatzen diren taldeen arabera ezarriko dira.

Emakidadunari , adjudikaziotik ateratzen den prezioa ordainduko zaio, ematen den ikastordu bakoitzeko eta espezialitatea edozein dela ere.

Sarbide kontrolari buruz:

Zerbitzu hau ondorengo taulan ageri den ordutegiaren arabera emango da. Udalak urtero onartuko du lanegun eta jai egunen egutegia.

<b>2015</b>	Goizez	Arratsaldez
Astelehenetik ostiralera (ostegunak izan ezik)	09:00-13:15	15:00-22:15
Ostegunak	09:00-13:15	15:00-22:30
Larunbata (itxita ekain eta uztailean, ekaineko lehen larunbata izan ezik)	08:45-13:15	15:30-21:00
Igande eta jai egunak	Itxita	



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Abuztua	Itxita	
---------	--------	--

Instalazioen mantentzea:

Zerbitzu hau ondorengo taulan ageri den ordutegiaren arabera emango da. Udalak urtero onartuko du lanegun eta jai egunen egutegia.

<b>2015</b>	Goizez	Arratsaldez
Astelehenetik ostiralera	07:00-12:00	
Larunbata (ekain eta uztaila itxita, ekaineko lehen larunbata izan ezik)		
Igande eta jai egunak	Itxita	

Kiroldegiaren kudeaketa eta koordinazioa:

Pertsona bat arduratuko da 1) atalean, zerbitzuaren helburua izenekoan, adierazitako zereginak betetzeaz. Udalak emandako jarraibideak jarraituko ditu zerbitzua egokia izan dadin. Udalak hartuko ditu zerbitzuaren kudeaketaren inguruko azken erabakiak.

Koordinatzailea izango da udalarekin harremanak izango dituen eta berari dagokio kiroldegiko kudeaketa eta koordinazioa, baita enpresa adjudikazio-hartzaileko langileei aginduak ematea ere.

<b>2015- urtean 800 ordu</b>	Astelehenetik ostiralera
Astelehenetik ostiralera	Koordinazio presentziala sarbide kontroleko langilearekin
Gutxienez astean behin	Koordinazio presentziala mantentzeko arduradunarekin
Gutxienez astean behin	Arreta presentziala udalerriko kirol taldeei

#### **4.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

Orokorrean, hauek dira esleipendunaren bete beharrekoak:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- 1.- Kirol zerbitzuak ematea da kiroleko udal zerbitzuaren programan ezarritako ikastaroak ematea.
- 2.- Enpresak zerbitzuak emango ditu ikuskaritza teknikoaren pean eta udaleko kirol zerbitzuak ezarritako irizpideak jarraituz. Langileriak gaitasunik ez balu zerbitzu horiek emateko, kontratatutako enpresak aurkitu beharko ditu haien ordeko kualifikatuak, emakidaren prezioan zerbitzua emateko eta haien ardurapean. Enpresa egingo da kargu begiraleen kontratazioaz eta zerbitzua emateko beharrezko langileez.
- 3.- Erabiltzaileei eman behar zaien kirol zerbitzuak kalitatezkoa izan behar duenez, ikastaroetara bakarrik joan daitezke zerbitzu hori kontratatuta dutenak, eta horretarako esleipendunak kontrolatu behar du ikastaro horien asistentzia. Era berean, ikastaroek gutxieneko eta gehienezko ikasle kopurua izango dute.
- 4.- Enpresa adjudikazio hartzaileak batera ditzake Ibarra emandako zerbitzuak eta beste herri erakunde nahiz pribatuetan emandakoa, beti ere emakida honetako zerbitzua kaltetua ez bada.
- 5.- Enpresa adjudikazio hartzaileak bere gain hartzen du zerbitzua emateko beharrezko giza errekurtsoak ematea, oinarri hauetan adierazi bezala. Langile hauek gutxieneko titulazioa izango dute, jarduera ezberdinetan irakasteko.
- 6.- Langileak gai izango dira beren eginkizunak gaztelaniaz nahiz euskaraz betetzeko, eta bereziki kirol ikastaroak eman behar dituztenak.
- 7.- Kirol teknikarien bitartez, klaseak emateko beharrezko diziplina izatea, edo instalazioen erabilera librea egiteko, beren arauak betez eta betearaziz,
- 8.- Udaleko kirol zerbitzuak jarritako materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta biltzea.
- 9.- Enpresak beste teknikariren bat kontratatuko balu, udal arduradunei aurkeztu behar die eta iragarri, jarduera hasi baino gutxienez hiru egun lehenago.
- 10.- Ikastaroan izena emandako ikasleen jarraipena egin, bai bakarkakoa, bai parte hartzaileen zerrenda eta baita zerrendetako ikasleen asistentzia kontrola. Horrekin batera, udalak eskatutako txosten eta memoriak egin beharko dira.
- 11.- Teknikariei eskatuko zaie beren betebeharrak ondo betetzea. Udal arduradunak ados egongo ez balira kontratatutako teknikariren batek egindako lanarekin, beste batek ordezkatzeko eskatuko da.
- 12.- Adjudikazio hartzaileak ordezkari bat izendatu beharko du udalarekin harremanak izateko.
- 13.- Adjudikazio hartzaileari atxikitako ondasunak zaindu eta mantentzea eta baita zainduaraztea, horretarako ezarritako udal jarraibideak jarraituz.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

14.- Zerbitzua eman beharko du aparteko ospakizunak direla eta eskatzen zaionean, norgehiagokak, erakusketak...direnean.

15.-Erabiltzaileen segurtasuna zaindu.

16.-Jasotako iradokizun eta erreklamazio guztiei erantzutea, udal arduradunei jakinarazita.

17.- Plegu ekonomiko administratiboan jasotako beste eginkizun batzuk.

### **5.- UDALAREN BETEBEHARRAK**

Ibarrako udalak, emaile gisa honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

1.- Pleguetan jasotakoaren arabera, emakidaren prezioa ordaintzea. Hau ordainduko da, emandako zerbitzuaren arabera eta likidazioa hilabetekoa ( hilabete mugaeguneratua) izango da.

### **6.- KIROL JARDUERAK**

Urtean zehar ateratzen diren ikastaroen arabera eman beharreko kirol jarduerak, honako baldintza hauek beteko ditu:

Ikastaro guztiek:

Astean zehar ordu kopurua: **astean 2 ordu.** (hau izango da irizpide orokorra, eta udalak alda dezake ordu kopurua).

Jarritako egunak: **Izen ematearen arabera.**

Ikasturtearen hasiera eta amaiera: **urriaren 1etik ekainaren 30era.**

### **7.- KONTROL SISTEMA**

Kontratutako zerbitzuak udal administrazioak ikuskatu eta begiratuko ditu eta berak langile eta material ikuskatzeak egin ditzake, egoki irizitakoan, edozein une eta tokian. Udal administrazioak izendatuz egindako ikuskatze horrek zerbitzuaren lokal eta bulegoetan sarbidea izango du, eta eskatutako datu guztiak emango zaizkio antolaketari buruz.

Adjudikazio hartzaileak hilero aurkeztu beharko du egindako lanen zatia eta zerbitzuan izandako gorabeheren berri. Horretaz gain, Udal Administrazioako jarraibideak jasoko ditu.

Adjudikazio hartzaileak, udal Zerbitzu Teknikoek eskatutako txosten eta azterketak egin beharko ditu, guztiak kontratatutako zerbitzuarekin zerikusia dutenak.

### **8.-LANGILEAK**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Kontratatistak, zerbitzua betetzeko beharrezko langile guztiak izango ditu (bere eskaintzan adierazita). Horrez gain, kontratatistak erreserbako langileak izango ditu gaixotasun baxak, oporraldiak, kontratu zabaltzeak...betetzeko.

Kontratuak irauten duen bitartean, adjudikazio hartzaileak, plantillan egin beharreko aldaketa oro, borondatezko bajagatik, erretiroagatik, heriotzagatik, kanporatzeagatik, baliaezintasun iraunkorragatik, edo zerbitzuaren beharregatik egindako edozein aldaketetan, udalaren baimena behar du sortuko diren hutsak betetzeko.

## **9.- ZERBITZUAREN HIZKUNTZ IRIZPIDEAK.**

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko du. Harrera eta mantentze zerbitzua ematen duten langileek Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila egiaztatu beharko dute.

Kontratu esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatze honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan langileek orain arte bezala jarraituko dute.

## **LAUGARRENA:**

### **4.-UA11 ERAIKINEAN (EUSKAL HERRIA18) DAUDEN ZUZKIDURAZKO ETXEBIZITZEN ADMINISTRAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ONARPENA**

Guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## ERABAKIA

**LEHENA:** Onartzea UA 11 eraikinean dauden zuzkidurazko etxebizitzaren administrazio zerbitzua kontratatzeke esleipenaren plegu ekonomiko-administratiboak

**BIGARRENA:** Lehiaketa deialdia egitea, prozedura negoziatu bidez, eta ohiko izapidearekin, UA11 eraikinean dauden zuzkidurazko etxebizitzaren administrazio zerbitzua kontratatzeke esleipena martxan ezartzea. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta pertsonal saileko administrariari.

## II.-ERANSKINA

### **BALDINTZA ADMINISTRATIBO-EKONOMIKO ETA TEKNIKOEN PLEGUA IBARRAKO A.A.S.S.ETAKO 11 J.U.KO ( EUSKAL HERRIA 18-1 ETA 18-2) DOTAZIO ERAKINAREN ETA ETXEBIZITZEN KOMUNITATEETAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO**

## **I. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1 ARTIKULUA - KONTRATUAREN XEDEA.-**

1. Lizitazioaren xedea da Ibarra Euskal Herria kaleko 18-1 eta 18-2 zk.etako- AASSetako 11 Jarduera Unitatean- etxebizitzetako komunitateen administrazio zerbitzua kontratatzea.

Zerbitzuaren zati bat aldeztatik zehazten da, hain zuzen, Euskal Herria kaleko 18-2 zk.ko etxebizitzaren kudeaketari dagokiona eta 18-1 etxebizitzako instalazio eta garaje komun kudeaketari dagokiona, elementu horiek komunak baitira bi komunitateentzat.

2. Kontratu honen xede diren komunitateak ondoko bi eraikinetan kokatzen dira eta partekatzen dituzte ur beroa, berogailua, eta garajeetako sarbidea, errodatzea, aireztatze eta detekzio instalazioak .

Euskal Herria 18-2 zk.ko eraikina udal titulartasuneko da eta 32 dotazio etxebizitza ditu, beren trasteleku, 33 garaje eta bi lokalekin batera, bat behe solairuan eta solairuarteetan eta bestea erdisotoan. Euskal Herria 18-1 zk.ko eraikina, titulartasun pribatuko da eta 6 etxebizitza ditu beren trasteleku, 6 garaje eta behe solairuko lokal batekin batera.

3. Kontratuaren bidez eman nahi diren zerbitzuak hauexek dira:





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## EUSKAL HERRIA 18-2 ZK.KO ZUZKIDURA ERAIKINA

- Auzokideen erregelamenduaren eta Estatutuen gaietan aholkatzea eta lankidetzaren ematea (uneoro udaleko zerbitzu juridikoaren laguntzarekin).
- Zerbitzu desberdinen alta edo titularitate aldaketa bideratzea (argindarra...)
- Ordainketa eta kobratzea kudeatzea komunitatearen eraketatik bertatik. Banku erreziboak eta fakturak jaso eta artxibatzea.
- Zerbitzu komunitarioko banakako erabilerako gastuen kobratze kontrola eta kudeatzea (ura eta berogailu zentralizatua, banakako kontagailuekin)
- EH 18-2 zk.ko etxebizitzaren, trastelekuen, garaje eta lokalen zerbitzu komunitarioen mantentze gastuen kudeaketa eta kobratze kontrola (parte-hartze kuotaren arabera).

Garajeak ez daude etxebizitzari lotuak eta horregatik batzuk ez daude etxebizitzetako errentatzaileei errentan utzita (etxebizitzekin zerikusirik ez duten herritarrei daude errentan utzita). Ondorioz, horien gastuen kobratzea ere kudeatuko da. Udalak administratzaileari jakinaraziko dio eguneratutako errentamendu kontratuei buruzko informazioa.

- Berankorren hileroko jarraipena, eta zordundutako kuoten eta ordainagirien auzibidetik kanpoko erreklamazioa.
- Komunitateko eta pertsonako hileroko ordainketen informazioa, Excel taulan komunitate bakoitzeko eta maizter bakoitzeko.
- Hiruhileko komunitatearen kontabilitatea. Maiztasun berdinarekin Ibarra udalari bidaltzea kontabilitate informazioa eta gainerako interesekoa, udaleko arduradunekin izandako ebaluazio bilerez gain, horiek egoki jotzen badute. Aparteko egoerak direla eta egin beharreko beste bilera batzuk.
  - Komunitatearen urteko aurrekontuak eta kontuak prestatzea.
  - Urteko ohiko batzar orokorraren deialdia, bertaratzea eta akta egitea eta aparteko bi batzarrena ere bai, egiten badira.
  - Deialdiak, aurrekontuak eta kontuak, eta batzar orokorraren eta ezohikoaren aktak maizter bakoitzari jakinaraztea.
  - Etxebizitzaren martxa ona zaindu, bere instalazioak eta zerbitzuak; horretarako maizterrei beharrezko oharpenak eta abisuak emango zaizkie.
  - Hiru hilabetetik behin elementu komunak berrikusiko dira beren egoera aztertzeko.
  - Matxura edo istripuen deiak jaso eta horiek konpontzeko udalak esandako zerbitzu teknikoei edo lan taldeei deitu edo enpresa eraikitzaileari, udalaren arduradun teknikoaren gainbegirapen.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Udalak, behin matxuraren arrazoia argitu ondoren, erabakiko du zein egiten den konponketaren kargu. Ikusten bada eraikitze orduko ezkutuzko akatsa dagoela, eraikitzailea egingo da horren kargu eta kudeaketa udaletik bertatik egingo da.

Ikusten bada matxura instalazioen erabilera edo mantentze okerretik datorrela, auzokiden komunitateari egotziko zaio, eta horiek ordaindu beharko dute.

- Komunitate eta etxebizitza bakoitzaren gorabehera guztien berri eman.
- Matxura izanez gero aireztate edo detektatze sisteman, administratzaileak (eta hori izango da baimendutako bakarra) matxuraren berri emango dio mantentze enpresari. Administratzaileak jakinarazi behar die auzokide guztiei gorabehera guztiak administratzailearen bidez izapidetuko direla.
- Administratzailearen bidez bideratuko dira oro har auzokide eta udalaren arteko harremanak.
- Banakako kontsumoen fakturen kobratze kudeaketa (ura eta berogailua). Horiek udaletik bidlaiko dira hilabete bakoitzaren 5ean eta horrez gain, hileko mantentze kuotak ere kudeatuko dira hilabete horren barruan. Hilabetea igaro ondoko ordainketa ezarik balego, udalari jakinaraziko zaio neurri egokiak har ditzan.

### EUSKAL HERRIA 18-1 ERAIKINA

- EH 18-1 etxebizitzetako eta garajetako Komunitateko eta norbanakoen gastuen ordainketa eskatzea bere administratzaileari hilabete bakoitzean. Hilabetea igaro ondoko ordainketa ezarik balego, udalari jakinaraziko zaio neurri egokiak har ditzan

## **2 ARTIKULUA - KONTRATUAREN IZAERA ETA MOTA, ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Kontratuaren xedea kontuan hartuz, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoetako Kontratuaren Legearen Testu Bategina- SPKLTB- onartzen duenak 10 eta 19 art.etan xedaturikoari jarraiki, administrazioko zerbitzu kontratu bat da.

Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleituko da, SPKLko 109, 142 eta 157-161. artikuluetan adierazi eta arautzen den bezala.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontratua arautuko duen legeria:

- 1) Plegu honetan eta plegu teknikoan jasotako baldintzak.
- 2) Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena, aurrerantzean SPKLTB.
- 3) Indargabetu gabeko Urriaren 12ko 1098/2001eko Erege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 4) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa partzialki garatzen duena.
- 5) Administrazio kontratazioa arautzen duen estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko foru edo tokiko aplikagarri den bestelako xedapenak.
- 6) Kontratu honi zuzenean nahiz zeharka eragin liezaiokeen edozein mailako beste xedapen bat.

Aurkakotasuna balego Plegu ekonomiko-administratibo hau eta kontratazio espedientean jasotako gainerako agirien artean, plegu honek aginduko du,

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa baliatuko da kontratua dela eta sor daitezkeen auzietarako.

### **3 ARTIKULUA – KONTRATUAREN PREZIOA**

1. Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 24.714,24€ da (BEZ %21 sartuta); Prezio honek bi urteko exekuzio epea aurreikusten du eta honela dago zatikatua, BEZ sartuta:

#### EUSKAL HERRIA 18-2 ERAIKINA

12,46€hilean, zuzkidura bizitokia trastelekuarekin.  
6,17€hilean, behe solairuan lokala  
6,17€hilean erdisotoan lokala  
2,54€hilean garajea

#### EUSKAL HERRIA 18-1 ERAIKINA

20€hilean BEZ sartuta.

2. Bi kasuetan prezioa lizitatzailleek hobetu dezakete.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

3. Kontratuaren prezioa izango da berau esleitzetik eta formalizatzetik ateratzen dena eta ez du inolaz ere, lizitazio aurrekontua gaindituko. Prezio itxia izango da, euroan emana, BEZ sartuta eta kontratistak bere gain hartuko ditu kontratutik eta plegu honetatik eratorritako betebeharrak guztiak.

4. Kontratuaren prezioan sartuta izango dira balorazio irizpide guztiak, bertan sartuta daudelarik ordejarritako gastuak, joan-etorriak, pertsonal gastuak, telefonoak..., eta kontratu agiriak nahiz indarrean dagoen legeriak esleipendunari atxikitzen dizkion beste gastu batzuk.

Kontratu honetatik kanpo geratzen dira komunitateen konturako ordejarriak, hala nola, akta liburuak, komunitatearen materiala, burofaxak, kopiak, gutunazalak eta jabeei nahiz erabiltzaileei igorritako posta gastuak.

#### **4 ARTIKULUA – PREZIOA BERRIKUSTEA**

Estatuko aurrekontu Orokorren legeak, 88 xedapen gehigarrian, herri administrazioetako kontratuen prezio berrikusteen desindexazioari buruzkoak xedaturikoari jarraiki, kontratu honetara ez da onartuko prezio berrikusterik, ez kontratua ez balizko luzapenean.

#### **5 ARTIKULUA –ESKAINTZAK ESKATZEA**

Enpresa lizitatzailerak.- SPKLko 178. artikuluari jarraituz, Ibarra Udala eskaintzak eskatu ahalko dizkie kontratu hori egiteko gai diren hiru enpresari. Eragin horretarako, gai joko dira jarduteko gaitasun erabatekoa duten pertsona natural edo juridiko espainiarrak edo atzerriarrak, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta ez badute SPKLko 60. artikuluan jasotako debekuetako bakar bat ere.

Eskaintzaren bat aurkezteak esan nahi du lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honetako klausulak, eta adierazpen erantzulea ere bada, Administrazioarekin kontratua egiteko behar diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazten duena.

Eskaintzak.- Enpresaburuei, ahal den guztietan, eskaerak idatziz eskatuko dizkie kontratazio organoak.

#### **6 ARTIKULUA – FINANTZABIDEA**

Zerbitzu hauek finantzatu dira administratzaile esleipendunari jabeago edo errentamendu komunitate bakoitzak, garaje komunitateak eta lokalen errentatzaile edo jabeek 3 art.an zatikaturiko prezioetan, eta horiek lizitatzailerak hobetu ditzakete.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udalaren kargu izango dira errentan eman ez diren bere jabegoko lokal edo garajeen administratziotik eratorritako gastuak. Bada aurrekontuan kontsiganaziori honako partidan: 1.0000.212.231.40.00 "EH 18-2 mantentze eta komunitatea" .

Aurrekontu arloko eskumeneko organoak konpromisoa hartzen du dagozkion kredituak erreserbatzeko , ukituak izango diren etorkizuneko aurrekontuetan .

## **7 ARTIKULUA – KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuak bi urteko iraupena izango du. Urtebeteko bi luzapen egin daiteke lau urte arte.

Indarraldia amaituta, automatikoki bukatuko da kontratua, eta adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. Nolanahi ere, adjudikazioaren xede den zerbitzua ematen jarraitu beharko du, harik eta hurrengo adjudikazioduna haren kargu egiten den arte. Bitartean, kontratuan ezarritako prestazioak jasoko ditu. Epealdi hori ez da izango hiru hilabete baino luzeagoa.

Beste esleipendun berri bat balego, aurreko esleipendunak informazio guztia helarazi beharko lioke esleipendun berriari, honek zerbitzuarekin jarrai dezan. Inolaz ere ezingo du, esleituriko zerbitzuaren inguruko informazioa oztopatu edo dokumentazio emateari uko egin. Betebehar hau ez badu betetzen udalak zigor dezake, entregatutako behin betiko bermearen zati bat atxikita.

## **8 ARTIKULUA –ORDAINTZEKO MODUA**

Kontratuaren prezioa hileroko ordainduko da. Horretarako, egindako lanen faktura aurkeztu beharko da, emandako zerbitzuarengatik jabe edo maizter komunitateari dagokiona, eraikinaren elementu bakoitzeko zatikatua. Faktura hori zerbitzuko arduradunak gainbegiratu eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Udalak hileroko ordainduko du errentan eman ez diren bere jabegoko garaje edo lokalei dagokiena. Horretarako aurretik administratzaileak zor duen zenbatekoaren inguruko txostena egin beharko du.

Ordainketa egingo da zerbitzua ematen denetik indarrean dagoen araudiak ezarritakoari jarraiki, eta enpresa esleipendunak jarritako kontu korrontea. Beti dagokion txosten justifikatzailea aurkeztu beharko da aurretik.

## **9 ARTIKULUA – BERMEAK**

### Behin-behineko bermea

Ez dago.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko hobereana aurkeztu duen lizitatzailleak, ezarritako betebeharrak betetze aldera, behin betiko bermea ezarriko du, hain zuzen, adjudikazio zenbatekoaren %5ari dagokiona, BEZ sartu gabe.

Berme hori ezartzeko epea, hamar egunekoa izango da, behin-behineko adjudikazioaren iragarkia egiten denetik kontatzen hasita eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 96.1 art.an ezarritako edozein modutan ezar daiteke.

Bermea itzultzea, bai osoa bai zatia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 102 art.an ezarritako moduren batean egingo da, behin berme epea igarota eta adjudikatzaileak kontratu betebehar guztiak bete ondoren.

## **10 ARTIKULUA – KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Halaber, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko dira kasu guztietan.

## **II.- DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEKO BALDINTZAK**

### **11 ARTIKULUA - KONTRATAZIO ORGANOA**

Kontratazio organoak (udaleko alkatea) kontratua esleituko du alkate dekretu bidez. Alkateak edozein unetan laga dezake zeregin hau tokiko Gobernu batzordearen esku.

### **12 ARTIKULUA – ESLEITZEKO PROZEDURA**

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 169 eta 174. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lege horretako 174 e) artikuluan agertzen den egoera bera baita.

Irizpide hauexek izango dira kontratua adjudikatzeko oinarri, garrantziaren eta puntuazioaren arabera ordenatuta:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

1. Eskaintza Ekonomikoa: 95 puntu
2. Memoria teknikoa: 5 puntu

#### 1. Proposamen ekonomikoa (gehienez 95 puntu)

Gehinezko puntuazioa emango zaio eskaintza hoberenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa hau iznago da: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpidearen puntu guztiak. Hauxe da formula hori:

$Ob \times Z$

Ol

Ob da eskaintza ekonomiko baxuena eta Ol baloratzen den lizitatzaillearen eskaintza; Z irizpide horretan emango diren gehinezko puntuak.

#### 2. Hobekuntzen proposamena (Gehienez 5 puntu)

Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

- a) 5 puntu arte. Lizitatzailleak proposaturiko beste hobekuntza batzuk, maizterren arteko elkarbizitzan sor daitezkeen gorabeherak kudeatzeko; entitate eta maizterren arteko gorabeherak..., hala nola eraikinaren mantentze/konpontzeak.

### **13 ARTIKULUA – KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA**

Kontratazio prozedura honetan, pertsona natural edo juridikoek parte hartu ahalko dute, baldin eta ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 60. artikuluan ezartzen dituen ezintasun edo bateraezintasunetako bat ere ez badute. Kaudimena 14 art.aren g) eta h) letretan ezarritako bideen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo beste pertsona batek ordezkatuta, horretarako emandako ahalmenaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa horko kideren batek parte hartu badu, horretarako ahalmena duela egiaztatu beharko du, agirien bidez. Hala kasu batean nola bestean, ordezkariari ere eragingo diote lehen adierazitako kontratatzeke ezintasunek.

### **14 ARTIKULUA – ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA PARTE-HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Prozedura honetan parte hartzeko proposamenak ezarritako epean aurkeztu beharko dira.

Proposamen horiek Ibarra udaltxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, San Bartolome Plaza 2 zk., astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik 2ak arte .

Epez kanpo aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta jasota gelditu postetxean aurkeztu zirela epea amaitu aurretik, ez bazaio kontratazio organoari bidaltzen telex edo telegrama bidez eskaera egin zeneko egunaren egiaztagiria, postaz bidali zeneko egunarena.

Kontratazio honetako espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Administrazio honetako Idazkaritzan aztertu ahal da, 09:00etatik 13:30era, lanegun guztietan, eskaintzak aurkezteko epe osoan.

Eskaintza horiek adierazitako toki eta ordu berean aurkeztuko dira, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azal horretan, honako hau idatziko da: **“IBARRAKO AASSETAKO 11 JUKO ZUZKDIRUA ERAKINEAN ETA ETXEBIZITZETAN KOMUNITATERAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA ”**. Dokumentu hauek izango ditu barruan:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunderen baten ordezkari gisa jarduten bada, notario-ahalordea ere aurkeztu beharko da.

b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa denean, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatutako eratzeko edo aldatzeko eskritura aurkeztu beharko da, halakorik bada, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman beharko da, aplikatzeko den merkatu legediaren arabera inskribatuta egon behar bada. Hala ez bada, eskritura edo eratzeko dokumentu bidez, estatutu edo sortze egintza bidez egiaztatuko da jarduteko ahalmena. Agiri horiek, beharrezkoa izanez gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira eta jardueraren arauak agertuko dira bertan. Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuak badira, kokatuta dauden estatuko legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu, Europar Batasunean aplikatzekoak diren xedapenen arabera.

c) Berariazko adierazpen erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko 60. artikuluan (Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, I ERANSKINA) agertzen diren kontratatze debekuetako bakar bat ere ez dutela adierazten duena. Halaber, espresuki adieraziko da indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga betebeharrak guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkatela, azken bi egoera horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu ez badira.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

d) JEZn alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, zehazki kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda daudela, baldin eta urte horretakoa bada ziurtagiria, edo JEZren azken ordainagiria, beste kasu guztietan; bi kasuetan, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaintzaileek zerga horren matrikulan baja ez dutela eman dioena.

e) Baldin eta hainbat enpresaburuk enpresen aldi baterako elkarte gisa parte hartzen badute lehiaketan, elkarte hori osatzen duten guztiek egiaztatu beharko dute jarduteko ahalmena eta kaudimena badutela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta adjudikaziodun suertatuz gero aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa agertu beharko dute. Halaber, aldi baterako elkarte horretako kide bakoitzak xedearen zein zati egingo duen adieraziko da eskaintzan, guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jarriko direla dioen adierazpena aurkeztu beharko dute, zuzenean edo zeharka sor daitezkeen kontratuaren gorabehera guztietarako, eta hala behar izanez gero eskaintzaileari dagokion jurisdikzio foruari uko egingo diotela adierazi beharko dute

g) Kaudimen ekonomiko finantzarioaren egiaztagiria:

Gutxienez bi erakunde finantzarioen txostenak edo lanbide arriskuen kalte-ordainerako aseguru baten egiaztagiriaren bidez.

h) Kaudimen tekniko edo profesionala:

Kaudimen tekniko edo profesionala, SPKLTBaren 78 art.ak ezarritako bitartekoren baten bidez.

h.1) Langile tekniko edo unitate teknikoak, enpresaren barruan izan ala ez, kontratuan parte hartzen dutenak eta enpresariaren nahiz enpresako langileen titulazio akademiko eta lanbidezkoak, eta, bereziki, kontratuaren gauzatzeaz arduratzen diren langileena.

Taldea, gutxienez, honakoek osatuko dute:

- Finken administratzaile titulua elkargokidea edo zuzenbidean lizentziatua dena.

Aipaturiko kaudimen irizpideak ez betetzeak prozeduratik at utzi dezake kontratazio mahaiak lizitatzailea.

SPKLaren Testu Bateginaren 62 art.ak xedaturikoari jarraiki, enpresariak bere kaudimena egiaztatu dezake beste entitateen kaudimen eta bitartekoetan oinarrituz. Horretarako gutunazalean akordio bat erantsiko du bitarteko horiek dituen enpresarekin.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

i) Eskaintza baloratzeko agiriak, plegu honetako 12 art.an jasotakoaren arabera.

j) Ondoko ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.

“ -----Jn/and,-----bizi denak,-----PK---  
-----NAN zk.-----Tfn,-----Faxa, -----e  
maila , gaitasun bete eta juridikoarekin, bere izenean/ edo -----ren  
izenean,-----helbidearekin,-----PK-----Tfn-----  
I:K.F zk.(pertsona fisikoa edo juridikoa izan)IBARRAKO AASSETAKO 11 JUKO DOTAZIO  
ETXEBIZITZETAN KOMUNITATERAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUA , prozedura negoziatu  
bidez, kontratatzeko deitu duen lehiaketaren berri izanda, aitortzen dut:

1) Kontratua emateari dagokionez, bera gauzatzeko hitz ematen dut, ondoren aipatzen diren prezioetan:-----€, gehi -----€ BEZari dagokion %21. Prezio horren barnean daude gastu guztiak, zergak, tasak eta edozein ariel fiskal, baita kontratistaren industria irabazia ere.

Prezio hori honela banakatuko da elementu bakoitzeko, BEZ sartuta:

#### EUSKAL HERRIA 18-2 ERAIKINA

.....€hilean, zuzkidura bizitokia trasteleku eta garajearekin.  
.....€hilean, zuzkidura bizitokia trasteleku eta garajearekin.  
.....€hilean lokala behe solairuan  
.....€hilean lokala erdisotoan  
.....€hilean garajea, ez lotua etxebizitzari

#### EUSKAL HERRIA 18-1 ERAIKINA

.....€hilean

2) Kontratu hau zuzenduko duten preskripzio teknikoan, Administrazio-baldintza partikularren Plegua , eta gainerako dokumentazioaren berri badudala, neure gain hartzen ditudala eta bere osotasunean bete.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela egungo araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak, irekitzeko, kokatzeko eta jarduteko.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

-----*(a)n*-----*(e)ko*-----*a(re)n*-----*(n)*

*Sinadura*”

Halaber, aurreko 60 art.aren 1 ataleko a), c ) eta e) letretan adierazitako egoerak, 54 art.an exijitutako jarduteko gaitasuna eta lanbide gaikuntza , 75 art.aren b) eta c) letretako kaudimena eta SPKLTBaren 78 art.aren a), c) eta i) letretan eskaturikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edota Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahalko dira, SPKLko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen adierazpen erantzule bat aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan, ziurtagirian agertzen diren egoerak ez direla aldatu adierazi beharko da.

Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak edo Administrazioak nahiz notario batek konpultsatutako edo benetakotzat jotako kopiak izan ahalko dira.

Eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatu eta gero, eskaintzak negoziatzeko aldia hasiko da, 12. klausulan ezarri diren adjudikatzeko irizpideen eta kontratuaren xedearekin lotuta aurkeztutako eskaintzaren alderdi ekonomiko, tekniko edota logistikoen arabera.

Negoiazioa amaituta, haren ondorioz iritzia aldatu duten parte-hartzaileek azken eskaintza bidali beharko dute, ekonomikoki abantailatsuena zer eskaintza den ikusi eta horren arabera eskaintza ekonomiko hoberena hautatzeko.

## **15 ARTIKULUA – ADJUDIKAZIOA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK**

Egindako eta amaitutako eskaintzak kontuan hartuta eta, halakorik izan bada, parte-hartzaileekin egindako negoziazioak Kontratazio organoak espedientea aztertuko du.

Kontratazio organoak, neurritz kanpoko edo ez normaltzat joak izan ez diren proposamenak beherazko ordenaz sailkatuko ditu.

Kontratazio organoak, eskaintza ekonomikorik onena egin duen eskaintzaileari, hamar lanegunetako epean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik hasita, ondorengo ziurtagiriak aurkeztea eskatuko dio:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- a) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- b) Kontratua gauzatzeko agindutako baliabideak benetan badituela.
- c) Bidezkoa den behin betiko bermea eratzea.
- e) Aseguru polizaren kopia eta ordainagiria.

Eskakizun hori adierazitako epean betetzen ez bada, eskaintzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo eskaintzaileari eskatuko zaizkio agiri horiek, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraituta.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta bost egun baliiodun igaro baino lehen adjudikatuko du kontratua.

Eskaintza ezingo da hutsik utzi baldintza pleguan ezarritako irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamenen bar egonez gero.

Adjudikazioa arrazoitua izango da eta hautagaiei edo lizitatzzaileei jakinaraziko zaie.

## **16 ARTIKULUA - KONTRATUA FORMALIZATZEA**

Kontratua agiri administratibo baten bidez formalizatuko da, gehienez ere adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliiodun igaro baino lehen. Agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahalko du kontratuaren eskritura publikoa egitea. Hala bada, berak ordainduko ditu gastuak .

Kontratua formalizatzen denean perfektionatuko da.

## **III KONTRATUA GAUZATZEA**

### **17 KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua kontratistaren gain eta galorde gauzatuko da, eta ez da azpikontrataziorik onartuko.

Kontratua agiri honetako klausulen arabera beteko da, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz baliatuko du ahalmen hori.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Baldin eta kontratistari edo haren mendeko pertsoneri egotzi ahal zaizkien ekintzengatik edo haiek egin beharreko eginbeharrak ez egiteagatik kontratua ondo ez betetzeko arriskua badago, Administrazioak egoki irizitako neurriak hartzea exijitu ahalko du, kontratua ondo gauza dadin.

## **18.- KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK**

Kontratistak lan arloko lege xedapenak, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun betebeharrak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango kontratistak betebeharrak horiek betetzen ez baditu.

## **19.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN HIRUGARREN BATZUEI EGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ**

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, SPKLko 214 eta 305 artikuluen arabera.

## **20.- KONTRATUA ALDATZEA**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 219. artikuluaekin bat etorriz, administrazio kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko da, I Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta eran, eta 211. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorriz. Kasu horietan, kontratazio organoak adostutako aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

## **21.- BERMEALDIA**

Berme-aldia hiru hilabetekoa izango da, kontratua amaitzen denetik aurrera. Aldi horretan, adjudikaziodunak Udalbatzarekin elkarlanean jardungo du kontratuarekin loturiko kontu edo gorabehera guztietan, eta erabiltzaileek eskatzen dituzten argibideak ematen edo aurkezten dituzten erreklamazioei erantzungo die.

Berme-aldian egiaztatzen bada lanek edo zerbitzuek ez dituztela betetzen eskatutako baldintzak, kontratistak, Udalak hala aginduta, akatsak zuzendu beharko ditu, Udalak adierazitako epean. Betebeharrak hori betetzen ez bada, kontratua azkendu ahalko da, eta ez da ordainduko prezioa, ez eta jadanik ordaindutakoa itzuliko ere; horrez gainera, zilegi diren kalte-ordainak erreklamatu ahalko dira.

Azkenik, ondore horietarako izendatutako teknikariak txosten bat igorriko du. Txosten horretan, lana ezarritako preskripzio teknikoaren arabera egin den adieraziko du, eta eskakizun guztiak betetakotzat jotzen baditu, lanak onartzeko proposatuko dio kontratazio organoari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Berme-aldia amaitu bada eta Udalak eragozpenik formalizatu ez badu, kontratistak ez du erantzukizunik izango, hirugarren batzuei egin ahal izan zaizkien kalte eta galeren erantzukizun zibilarena izan ezik.

## **22.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI JARRI AHAL ZAIZKION ZIGORRAK**

### **A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK**

Baldin eta kontratistak berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua garaiz amaitu ez badu, hala epe osoari dagokionez nola, halakorik bada, epe partzialei dagokienez, Administrazioak bi erabaki hauetako bat hartu ahalko du: edo kontratua etetea bermea kenduta, edo egunean eguneko zigorrak jartzea, kontratuaren prezioa 1.000 euro bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuko %5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua azkentzeko edota harekin aurrera jarraitzeko, beste zigor batzuk jarrita.

### **B/ PRESTAZIOAK PARTZIALKI GAUZATZEA**

Kontratistak berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik kontratuan zehaztutako prestazioetako batzuk bete ez baditu, Administrazioak bi aukera hauek izango ditu: edo kontratua azkentzea, edo zigor bat jartzea, kontratuaren guztizko prezioaren ehuneko 10aren heinekoa.

Prestazioa ondo eman ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.

Kaudimena 11.e) klausulan ezarritako baliabide material edo pertsonalekin osatzeko betebeharra bete ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.

Zigor horiek lege ezarritako prozeduraren bidez eraturako bermetik ordainduko dira, eta kontratistak osatu beharko du ondoren bermea, zigorrak ordaintzeko zati bat kendu behar den bakoitzean.

## **23.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZIOIAK**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Zerbitzu kontratua bukatzeko arrazoi izango dira SPKLko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak, eta SPKLko 225. eta 309. artikuluetan adierazitako baldintzetan eta ondoreekin.

## **24.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, amaitzea eta horren eraginak erabakitzea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorrak ezarritako mugen barruan eta horko baldintza eta eraginak betez.

## **25. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK**

1. Enpresa esleipenduna eta bertako langileak behartuta daude lanbide-sekretua zaintzera kontratuaren helburua eta datuei dagokienez, baita kontratua amaitutakoan ere, abenduaren 13ko 15/1999 lege Organikoak batez ere 10 art.an, xedaturikoa betez.

2. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du langileei jakinarazteko kontratu honetan jasotako obligazioak, eta bereziki, sekretu betebeharrari dagozkionak. Esleipendunak erantzun beharko du ber langileek egin ditzaketan lege arau-hausteen aurrean.

3. Enpresa esleipendunak eta bere langileak zerbitzua ematen duten bitartean, beren bulegoetako segurtasun agiriak zorrotz beteko dituzte .

4. Esleituriko kontratuak eskatzen badu izaera pertsonaleko datuak tratatzea bere osotasunean bete beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuei Buruzkoa, eta bere garapenerakoa araudia, SPKLaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoa betez.

## **26.- BALIABIDEEN ARAUBIDEA**

Kontratazio honi dagozkion ebazpenek eta izapidezko egintzek, baldin eta azken horiek zuzenean edo zeharka erabakitzen badute gaiaren muinaren gainean, ezartzen badute ezin dela prozedurarekin jarraitu, babesgabezia sortzen badute edo eskubide eta interes legitimoetan kalte konponezina badakarte, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako berraztertze errekurtso administratiboa jarrai ahalko da, edo, bestela, administrazioarekiko auzien errekurtso bat jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututakoari jarraiki.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Interesdunek gainerako izapidezko egintzen aurka daudela alegatu ahalko dute, prozedura amaitzen duen ebazpenean kontuan har daitezten.

## **I ERANSKINA**

### **AITORPEN EREDUA**

.....jn/and, adinez nagusia, NAN.....duena  
eta.....helbidea duena. Tel: .....Fax:.....

Aitortzen du herri Administrazioarekin kontratatzeko ahala duela, jarduteko gaitasuna duela eta SPKLaren Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 60 art.an aurreikusitako inolako ezgaitasun baldintzatzen ez dagoela.

Aitortzen du halaber,

- Zerga eta gizarte segurantzetako betebeharretan egunean dagoela, urriaren 12ko APLEOk (1098/2001 ED) 13 eta 14 art.etan aurreikusitako moduan.

- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan "IBARRAKO A.A.S.S.ETAKO 11 J.U.KO ZUZKIDURA BIZITOKIETAKO KOMUNITATEETARAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA"n, aitorpen hau sinatzen dut .

.....2015eko .....ren.....n.

Sinadura.





IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BOSGARRENA:**

**5.-IBARRAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA**

Kultura eta Gazteria sailetik Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzua kontratatzeke baldintza ekonomiko-administratibo eta tenikoak aurkezten dira.

Idazkaritzak pleguak aztertu ditu eta Tokiko Gobernu Batzordeko kideek ere.

Mikel Aguirrezabala zinegotziak adierazten du ez dela prozedura egokia eraman plegu hauen egikaritzan eta Idazkaritzari egozten dio plegu hauen atzerapena. Idazkariak adierazten du arazoa konpontzen saiatuko direla baina plegu asko denbora gutxian onartzea ez dela erraza Idazkaritza sailarentzat.

Guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzua kontratatzeke esleipenaren plegu administratibo eta teknikoak

**BIGARRENA:** Lehiaketa deialdia egitea, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzua kontratatzeke esleipena martxan ezartzea. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean iragarkia jartzea eta kontratazio profileen argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta pertsonal saileko administrariari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **III.ERANSKINA**

## **IBARRAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.**

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA-  
- Prozedura irekia -**

-----

## **CONTRATACIÓN DEL SERVICIO PARA FOMENTAR LA PARTICIPACION EN IBARRA DE NIÑOS, ADOLESCENTES Y JÓVENES**

**- PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS -  
- Procedimiento abierto -**

**ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: KULTURA ETA GAZTERIA ARLOA / AREA DE  
CULTURA Y JUVENTUD .**

**ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE:**

#### **KLAUSULAK**

##### **1.- HELBURUA**

Oinarri hauen xedea ondorengo zerbitzua emateko baldintza teknikoak arautzea da: Ibarra Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua.

Kontratuaren exekuzioa gauzatzen da zerbitzuaren diseinu, planifikatze, emate eta antolaketa lanetan, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta Ibarra Udako Gazteria eta Kultura Teknikarien zuzendaritzapean.

#### **CLAUSULAS**

##### **1.- OBJETO**

El objeto del presente pliego es regular las condiciones técnicas para la prestación del siguiente servicio: servicio para fomentar la participación en Ibarra de niños y niñas, adolescentes y jóvenes.

La ejecución del contrato se materializa en el diseño, planificación y prestación de servicios y en las labores organizativas, de conformidad con lo dispuesto en el presente pliego y bajo la dirección de los técnicos de juventud y cultura del ayuntamiento de Ibarra.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2. JUSTIFIKAZIOA**

### **2.1. Tokiko gazteria politika.**

Ibarrako Udaleko euskara eta hezkuntza eta kultura eta gazteria sailetan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroaren gaineko aisialdiari loturiko esku hartzean lanean dihardute urteetan zehar.

Zentzu honetan, Ibarrako haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzuak aisialdiaz gozatu eta aldi berean ikasteko izaera hezitzaileak guneak eskaini beharko ditu.

Zerbitzuak, errespetuan, tolerantzian, askatasunean, berdintasunean, aniztasunaren aberastasunean, elkartzasunean eta pertsona guztientzako giza eskubideen defentsan, oinarrituriko proiektu hezitzaileak izan nahi du.

Proiektu honen azken helburua, lan metodologia parte-hartzaile, eraginkor eta zuzenaz baliatuz, haur, nerabe eta gazteen heldutasun pertsonala bultzatu eta komunitatearekiko konpromiso handiagoa sustatzea da.

### **2.2. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Gaztematika.**

Ibarrako haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua, "Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren", Gaztematikaren, baitan kokatzen da.

Gaztematikaren xedea eta Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuaren I (aurrerantzean PZ) xedea berbera da: Tokian-tokiko haur, nerabe eta gazteei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duten bizi-etapa gisa; hau da, etapa hauetan nor bere bizitzako protagonista da, hiritartasun-eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zatia da.

## **2. JUSTIFICACIÓN**

### **2.1 Política local de juventud**

En los departamentos de euskara y educación y cultura y juventud del Ayuntamiento de Ibarra se viene realizando una labor de intervención en el ocio dirigido a la infancia, adolescencia y juventud.

En este sentido, el servicio para fomentar la participación de niños y niñas, adolescentes y jóvenes deberá ofrecer ámbitos de carácter educativo para disfrutar del ocio.

El servicio desea ser un proyecto educativo basado en los siguientes valores: respeto, tolerancia, libertad, igualdad, pluralidad, convivencia y defensa de todos los derechos humanos de las personas.

El objetivo último de este proyecto es impulsar y promover un compromiso mayor hacia la comunidad e impulsar una madurez personal mayor entre la infancia, adolescencia y juventud mediante una metodología participativa, eficaz y directa.

### **2.2 Sistema para la promoción de niños y jóvenes de Guipúzcoa. Gaztematika.**

El servicio para la promoción de la participación de niños, adolescentes y jóvenes en Ibarra se encuadra dentro del "sistema para la promoción de niños y niñas y jóvenes de Guipúzcoa" gaztematika.

La finalidad de Gaztematika y el servicio para promover la participación de niños, adolescentes y jóvenes (en adelante SP) es el mismo: garantizar la posibilidad de disfrutar de la niñez y juventud mediante una oferta permanente a los niños, adolescentes y jóvenes de cada lugar, en dos vertientes comunes a las etapas:

- Como etapa vital con valor y significado en sí misma, en la que cada persona es protagonista de su vida, sujeto de derechos de ciudadanía y parte indispensable del tejido social.
- Como etapa que, mediante la maduración,

<sup>1</sup>"Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua. Definizio dokumentua" Udaleko webgunean zintzilik izango da eskuragarri oinarri tekniko hauekin batera.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanaka emantzipazio-prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duten etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen da erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia-maila handiena.

Sistemak, esku hartze zuzena, eta beste sistema edo heziketa eremu batzuekin lankidetzan aritzearen bidez lortzen du hartzailengandua eragitea. Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduaren funtsa dira ondorengo printzipio, balio eta irizpideak:

- Haur eta nerabeen sustapen politikaren izaera sektorial eta berariazkoa zein integral eta zeharkakoa.
- Zehar-lerroak: Berdintasuna, parekidetasuna, aniztasun kulturala eta euskararen sustapena.
- Erantzukizun publikoa eta gizarte partaidetza
- Koordinazioa eta sare lana.
- Proaktibotasuna, gertutasuna, pertsonalizazioa, jarraikortasuna eta prebentzioa.
- Ezagutzan oinarritutako kalitatezko esku hartzea.

Sustapen zerbitzu horien eskaintza haur eta nerabeen beharren detekzio jarraituan oinarritzen da, eta premia horiei erantzuna eman nahian egiten den eskaintza honako jardueren-eremuetan antolatu ohi da:

1. Informazioa
2. Orientazioa
3. Bide-laguntza
4. Aisia hezitzailea
5. Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak
6. Sorkuntzarako eta produkziarako bideak

aprendizaje y fortalecimiento de capacidades personales y vínculos sociales, hace posible un proceso progresivo de emancipación, es decir, una transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta, en la que se alcanza autonomía para la toma de decisiones y su puesta en práctica en un proyecto personal de vida.

El sistema en colaboración con la intervención directa y con otros sistemas y ámbitos educativos consigue influir en el destinatario. La base organizativa y operativa del sistema está formada por los principios, valores y criterios siguientes:

- Carácter sectorial y específico, integral y transversal de la política de promoción de la infancia y la adolescencia.
- Factores transversales: igualdad, paridad, pluralidad cultural y promoción de uso del euskera.
- Responsabilidad pública y participación social.
- Coordinación y trabajo en red.
- Proactividad, cercanía, personalización, continuidad y prevención.
- Participación de calidad basada en el conocimiento.

La prestación de dichos servicios de promoción se basa en la detección continua de las necesidades de niños y niñas y adolescentes; y la oferta realizada con el fin de satisfacer dichas necesidades se centra en los siguientes ámbitos de actividad<sup>2</sup>:

1. Información
2. Orientación
3. Acompañamiento
4. Educador de ocio
5. Medios de expresión y de participación
6. Medios de creación y de producción

---

Jardueren-eremuen inguruko zehaztapen gehiago "Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema" dokumentuan aurki daitezke.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA.**

#### **3.1. Definizioa.**

**Zerbitzua: Harreman eragingarrirako elkargune, ekintza eta profesionalak.**

Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua hezkuntza asmo argia duen planifikatutako eskaintza da: Gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena da.

Gizarte-hezkuntzarako esku-hartzeaz ari garenean honakoa esan nahi dugu: Subjektu dituen pertsonekin garatzen den esku-hartze profesionala, soziala eta hezigarria; hezkuntza-prozesu aldatzaileak sortzen dituen; funtsean harremani dagozkien tresnen bidez, garapen pertsonala, soziala eta oro har komunitatearena sustatzen dituen; pertsonen, kolektiboen eta komunitatearen bizi-baldintzak hobetzeko intentzioduna, egoera zailenei eta desabantaila sozialeko egoerei arreta berezia eskainiz (Otaño, 2013).

Zerbitzua hiru dimentsiok egituratu beharko dute esku-hartze hori bideragarria izan dadin: Batetik, elkargune izango den ekipamenduak; bestetik, antolaketa zein ekimenetarako, jarduera, ekintza eta eskaintzak; eta azkenik, esku hartzen duten profesionalak (Funes, 2010). Hiru dimentsio horiek harreman eragingarri bat sortzeko aukera eskainiko dute, zerbitzuak dituen helburuak gauzagarri eginaz.

Era berean, ezin ahaztu dezakegu zerbitzua haur, nerabe eta, gazteen aisialdi denboratan eskaintzen dela, eta oinarrian aisia hezitzailea duela. Hau da modu esplizituan gozamen eta pertsonaren garapen librea helburu duen aisia (Berrio-Otxoa, Hernandez eta Martinez, 2003). Beraz, bertatik abiatutako ekimen orok izaera ludikoa izan beharko du; haur, nerabe eta gazteen behar zein eskaerak aintzat hartuz horien gozamenara zuzenduz.

#### **Parte hartzea: Helburu eta tresna.**

Herritar aktiboak sustatzea xede duen zerbitzu batez ari garenez, ezinbestekoa da herritartasun aktiboaren eta parte hartzearen arteko harremanari arreta eskaintzea.

### **3. DESCRIPCION DEL SERVICIO**

#### **3.1 Definición**

**El Servicio: punto de encuentro, actuaciones y profesionales para generar contextos significativos de influencia.**

El Servicio de Apoyo a la Iniciativa y la Participación Infantiles, Adolescentes y Juveniles es una oferta planificada con un objetivo claro: se trata de una propuesta de intervención socioeducativa.

Al hablar de intervención socioeducativa hablamos de la intervención profesional, social y educativa que se desarrolla con las personas sujeto de la misma, generando procesos educativos de cambio; que promueven el desarrollo personal, social y de la comunidad general, cuya intencionalidad es la mejora de las condiciones de vida de las personas, colectivos y la comunidad, prestando especial atención a situaciones de mayor dificultad y desventaja social (Otaño, 2013).

Para que esta intervención pueda realizarse, el Servicio tiene que estar estructurado en torno a estas tres dimensiones: por un lado, el equipamiento que servirá de punto de encuentro; por otro lado, las actuaciones, acciones, actividades,...; por último, las y los profesionales que realizan la intervención (Funes, 2010). Estas tres dimensiones facilitarán la intervención educativa, posibilitando así alcanzar los objetivos del servicio.

Asimismo, debemos recordar que este servicio se presta durante el tiempo libre del que gozan niños y niñas, jóvenes y adolescentes, por lo que se basa en el ocio educativo. Es decir, el ocio que tiene de modo explícito como objetivo el disfrute y el libre desarrollo personal (Berrio-Otxoa, Hernandez y Martinez, 2003). Por tanto, cualquier iniciativa planteada desde el servicio tendrá un carácter lúdico, que responderá a las necesidades y las demandas de niños y niñas, jóvenes y adolescentes, y su fin será el disfrute.

#### **Participación: objetivo y herramienta.**

Tratándose de un servicio cuyo objetivo reside en promover la ciudadanía activa, es necesario determinar la relación entre la ciudadanía activa y la participación. El número 9 de la colección Mesanotxean (Bergua y Ximenez: 2010) recoge



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Bederatzigarren Mesanotxearen (Bergua eta Ximenez: 2010) arabera, herritartasun aktiboa sustatzeak hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:

- Norbanako-mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea.
- Talde-mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espiritu kritikoduna.
- Komunitate-mailan jendarteko aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea.

Bien bitartean, horrela ulertzen dugu parte hartzea: Norbanakoek (besteekin batera) beren inguru eta harremanak aldatzeko duten gaitasuna da, beraien bizitzarekin zuzenean hala zeharka eragina duten baldintzetan eragin nahi izanik, erabakiak hartu eta beraien garapen pertsonal, nahiz kolektiboa ahalbidetuz.

Horrela, herritartasun aktiboa sustatzea eta parte hartzea bultzatzea elkar uztartzen diren kontzeptu eta metodologia bezala ulertzen ditugu. Biak hala biak, helburu eta bide dira. Komunitate baten parte diren, parte hartzen duten eta horren dinamizazioan eragile diren herritarrak nahi ditugu; eta, horretarako, komunitatean txertatutako zerbitzu baten beharra dugu, haur eta gazteak komunitatean parte har dezaten eta bertako eragile izan daitezen. Hain zuzen ere, Gaztematikan herritartasun aktiboa eraikitzeke bi ikasketa-tresna nagusi erabiltzeko hautua egin da: Herritarren parte hartzea aktiboa eta herritartasun aktiborako hezkuntza.

Herritarren parte hartze aktiboa: Parte hartzen parte hartuz ikasten delako, eta parte hartzea bera ikasketa-prozesu iraunkor gisa ulertzen dugulako.

Herritartasun aktiborako hezkuntza: Parte hartu ahal izateko gaitasun eta konpetentzia jakin batzuk garatzeko aukera izan behar dugulako. Ezinbestekoa da hezkuntza ez formalaren bitartez, herritartasuna egikaritzeko beharrezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta aukerak ahalbidetzea. Nolabait, norbanakoek eta kolektiboek parte hartze aktiboa garatzeko dituzten aukeren artean desoreka nabarmenak daudelako:

que el promocionar la ciudadanía activa conlleva fomentar tres elementos:

- La autonomía a nivel individual: tener capacidad y posibilidad de organizarse y ser/hacer lo que uno desea.
- La dimensión activa, a nivel colectivo: Incluye una actitud cívica y el sentido de compromiso con la sociedad, pero también el espíritu crítico de la realidad.
- La capacidad de implicarse en los procesos de cambio, a nivel comunitario.

Entendemos la participación como la capacidad que tienen los individuos (junto con otras personas) de cambiar su entorno y sus relaciones, queriendo influir en las condiciones que tienen que ver de manera directa o indirecta con su vida, tomando decisiones acerca de esas condiciones y permitiendo su desarrollo tanto personal como colectivo.

Así, consideramos que la promoción de la ciudadanía activa y la promoción de la participación son conceptos y metodologías en interconexión. Ambos elementos son objetivo y, a su vez, medio. Queremos que la ciudadanía sea parte de una comunidad, que participe y que se convierta en agente de su dinamización, y para ello necesitamos un servicio integrado en la comunidad, para que niños, niñas y jóvenes participen y sean agentes en la comunidad. De hecho, en Gaztematika se ha optado por hacer uso de dos herramientas de aprendizaje para la construcción de la ciudadanía activa: la participación ciudadana activa y la educación para la ciudadanía activa.

La participación ciudadana activa: Porque se aprende a participar participando, y porque la propia participación es un proceso de aprendizaje continuo.

Educación para la ciudadanía activa: Porque tenemos que tener la oportunidad de desarrollar unas capacidades y unas competencias para poder participar. Es necesario que a través de la educación no formal se posibiliten las capacidades, las actitudes y las oportunidades necesarias para poder ejercer la ciudadanía. En cierta manera, porque hay grandes desequilibrios entre las posibilidades que tienen los individuos y los colectivos de desarrollar una participación activa; porque ha aumentado el riesgo de vivir situaciones de



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Bazterkeria egoerak bizitzeko arriskuak handitu direlako; eta generoak, klaseak, hizkuntzak, etniak, funtzio aniztasunak eta abarrek, eragin zuzena dutelako. Hain zuzen ere, hezkuntza bihurtu da, desoreka eta desberdintasun horien aurrean, aukera berdintasuna sustatzeko gako nagusienetakoa. Eta hori bideragarri egiteko, ezinbestean, hurbileko profesionalen beharra dugu.

### **3.2. Helburuak.**

Haur, Nerabe Eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak honako helburu orokorrak ditu:

#### **3.2.1.- Norbanako mailan: Autonomia sustatzea.**

1.- Autonomia eta erantzukizuna: Nortasun pertsonalaren garapena eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea.

2.- Haur, nerabe eta gazteengan eskumenak garatzea autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren mailak lortzeko, aukera berdintasuna bermatuz. (eskumenak: Arrazoizko jakin- mina, komunikazio enpatikoa, errespetua, eta abar).

#### **3.2.2.- Talde mailan: Konpromisoa eta jarrera kritikoa.**

1.- Partaidetza kolektiborako sentimendua garatzea.

2.- Gazteei euren aniztasunean laguntzea, euren gizarte parte hartzeko modu eta forma ezberdinak onartuaz.

3.- Berdinen arteko erlazio eraikitzaileak garatzea, beraien artean sareak sortzea.

#### **3.2.3.- Komunitate mailan: Aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna.**

1.- Herriko parte-hartzea duintzea.

2.- Tokiko eremua erakundeen elkarriketarako eremu pribilegiatu gisa hautatzea.

3.- Eremu publikoarekiko kezka sortaraztea.

4.- Udalerrian haur, nerabe eta gazteen errealitatea ezagutaraztea eta hauek herriko eragile gisa ikusgarri egitea.

discriminación; y porque el género, la clase, la lengua, la etnia, la diversidad funcional, etc. afectan directamente. De hecho, la educación se ha convertido, ante estos desequilibrios y estas diferencias, en una de las claves más importantes para promover la igualdad de oportunidades. Y para que esto sea posible se hacen necesarios los profesionales cercanos.

### **3.2 Objetivos**

El Servicio de Apoyo a la Participación y a la Iniciativa de la Infancia, Adolescencia y Juventud tiene los siguientes objetivos generales:

#### **3.2.1 A nivel Individual: promover la autonomía**

1. Autonomía y responsabilidad: Garantizar el desarrollo de la identidad personal y la capacidad de ocupar un lugar activo en la sociedad.

2. Desarrollar en la infancia, la juventud y la adolescencia competencias para alcanzar cotas de autonomía personal y colectiva, garantizando la igualdad de oportunidades (competencias: la curiosidad racional, la comunicación empática, el respeto, etc.).

#### **3.2.2. Colectivamente: compromiso y actitud crítica**

1. Desarrollar un sentimiento de pertenencia colectiva.

2. Apoyar a los jóvenes en su diversidad, reconociendo las diferentes formas y diversos modos de participar en la sociedad.

3. Desarrollar relaciones constructivas entre iguales

#### **3.2.3 A nivel de comunidad: capacidad de implicarse en procesos**

1. Dignificar la participación local.

2. Elegir el ámbito local como espacio privilegiado de interlocución institucional.

3. Generar la preocupación con el ámbito público.

4. Dar a conocer al municipio la realidad de la infancia, la adolescencia y la juventud, y visibilizarlos como agentes locales.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Helburu orokor hauek osatu asmoz, hautua egiten dugu jendartea zeharkatzen duten eta horrek eraikitzen dituen aniztasun eta desoreka egoerak kontuan hartzeko. Parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu ahal izateko ezberdintasun egoera hauek orekatzeko asmoarekin lan egin behar da, baita oztopo gehien dituztenak kontuan hartuta lan egin ere. Genero-aniztasuna, kultura-aniztasuna, hizkuntza aniztasuna, funtzio-aniztasuna eta abarrak kontuan hartzea ezinbestekoa izango da helburu orokor horiek modu egokian landu eta asetzeko. Norbanako guztiak biltzea eta elkarri eragitea bultzatuko da; aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea, eta, hala, gozatzea. Horrek aniztasunak kudeatzeko prestatuko dituzten gaitasunak eskuratzera eta garatzera behartzen ditu eragileak, bereziki profesionalak.

Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna elkar osatu eta indartzen diren printzipio eta balioak dira, eta horiek, era berean, zerbitzuaren atal, eragile, ekintza eta jardunbideak orientatu, dinamizatu eta zentzuz hornitzen dituzte (Gaztematika:2009). Honako hauek dira zerbitzurako proposatutako zehar-lerroak:

**Zehar-lerroak:**

- a) Euskararen normalizazioa.
- b) Aniztasuna: Kultura-aniztasuna eta funtzio aniztasuna kontuan harturik gizartean parte hartzeko aukera berdintasuna sustatzea.
- c) Parekidetasuna: Generoari dagozkion desberdintasunak gainditzeko bitarteko, ekintza eta jarduerak sustatzea
- d) Aisialdiaz gozatzea eta ondo pasatzea: Astialdiaz gozatzea, modu aktiboan, partaidetzazkoan, sortzailean, osasungarrian eta ongizate emozionala ahalbidetzekoan.

**3.3. Ezaugarriak.**

**3.3.1.- Arreta eskaintza jarraitua.**

Arestian aipatu dugun moduan, hiru adin-tarteei arreta eskaintzen dien zerbitzu bakar batez ari gara. Hau da, zero eta hogeita hamar urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arreta publiko iraunkor, koherente eta jarraitua.

Con el fin de completar estos objetivos generales, optamos por tener en cuenta la diversidad y los ejes de desigualdad que conforman esta sociedad. Para poder garantizar una igualdad de oportunidades en la participación, hay que trabajar para lograr el equilibrio en estas situaciones de desigualdad, teniendo en cuenta a quienes más dificultades puedan tener. Solo se podrán trabajar y alcanzar estos objetivos generales si se tienen en consideración la diversidad de género, la diversidad cultural, la diversidad lingüística, la diversidad funcional, etc. Se trabajará para promover la interacción de todas las personas; para aprender a convivir en la diversidad y disfrutar de ella. Para ello, los agentes y, especialmente, los y las profesionales, deberán adquirir y desarrollar capacidades que les ayudarán a gestionar estas diversidades.

La igualdad, la equidad y la diversidad son principios y valores que se complementan y refuerzan mutuamente y, al mismo tiempo, orientan, dinamizan y dotan de sentido a las secciones, a los agentes, las actividades y los procedimientos del servicio (Gaztematika: 2009). A continuación se relacionan las líneas transversales propuestas para el servicio.

**Lineas transversales:**

- a) Normalización del euskera:
- b) Diversidad: Promover la igualdad de oportunidades de participar en la sociedad teniendo en cuenta la diversidad cultural y funcional.
- c) Paridad: Promover medios, actividades y acciones para superar las desigualdades de género.
- d) Disfrute del ocio y diversión: Disfrute del ocio, de manera activa, participativa, creativa y saludable, posibilitando así el bienestar emocional

**3.3 Características**

**3.3.1 Atención continuada.**

Como hemos señalado anteriormente, se trata de un único servicio que ofrece atención a tres franjas de edad distintas. Es decir, atención continuada, pública, permanente y coherente a niños, niñas, adolescentes y jóvenes de entre cero y treinta años.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Ludikotasuna ardatz hartuta, gurasoen (0-5 urte), haurren (6-11 urte), nerabeen (12-17 urte) eta gazteen (18-30 urte) bizi-aldi bakoitzari egokitutako behar eta eskaerei zein horien arteko trantsizioei arreta eskainiko diena.

### **GURASO-TXOKOA**

Ibarra, beste hainbat herrietan gertatu kasu, hainbat gurasok egin izan dute euren seme-alabekin egon ahal izateko babes-leku baten eskaera. Hori dela eta, uste dugu 0-5 urte bitarteko guraso-txokoa zerbitzuaren lehenetsunezko atal baina, primerako osagarri izan daitekeela. Izan ere, gurasoen parte hartze eta inplikazioa ahalbidetuko du, komunitate-loturak sortuz eta eraginaz. Irudikatu dugu gurasoek bere kasa egituratu, antolatu eta kudeatutako espazio gisa. Modu autonomoan, hezitzaileen presentzia iraunkorrik gabe antolatutako sozializaziorako espazio gisa.

Guraso txokoak zerbitzuaren osagarritzat jotzea proposatzen dugu, honako baldintzak betetzen dituztenean:

- Ibarra haur eta guraso orok bertan parte hartzeko aukera badute.
- Gurasoek herriko ekintza edo jardueretan eragile gisa parte hartzeko prestutasuna agertzen dutenean.
- Hezitzaileekin koordinazio-sistema bat sortzeko gai direnean.

Hori guztia kontuan hartuta, honako helburuok proposatzen ditugu zerbitzutik gurasoekiko:

- Gurasoekin harreman egonkor eta jarraitua sortu
- Gurasoekin elkarlanean aritzea eta haiekin ekintzak aurrera eramatea
- Gurasoentzako interesgarriak izan daitezkeen jardueren inguruan formatzen laguntzea.

### **HAURREN ATALA:**

Zerbitzu honen asmoa da herritartasun aktiboa txikitatik lantzen hasteko eskaintza publikoa bermatzea, horregatik 6-11 urte bitarteko haurrekin zuzenean lan egiten hastea proposatzen dugu. Atal honen helburuak ondorengoak lirateke:

- Protagonismoa haurrari berari ematea, zertan

Tomando como base lo ludico se trata de un servicio que ofrece atención a necesidades y solicitudes de cada edad: a padres, (0-5 años), niños y niñas (6-11 años), adolescentes (12-17 años) y jóvenes (18-30 años).

### **TXOKO DE PADRES**

En Ibarra, como en tantos otros municipios, muchos padres han solicitado un txoko para estar con sus hijos. Por ello consideramos que el txoko de 0-5 años más que una parte prioritaria del servicio, puede ser un complemento de primera. Posibilitará la implicación y participación de padres creando lazos comunitarios. Se imagina como un espacio estructurado, organizado y gestionado por los padres. Se trata de un espacio sin presencia permanente de educadores, un espacio autónomo para la socialización.

Aún así, estos txokos serán complementarios al servicio cuando cumplan estas condiciones:

- Cualquier niño o niña, padre o madre del barrio o territorio tiene la posibilidad de participar.
- Los padres y las madres dejan de ser simples usuarios del espacio y se convierten en agentes.
- Se muestran dispuestos a crear un sistema de coordinación permanente con los y las profesionales del servicio.

Teniendo en cuenta lo anterior, proponemos los siguientes objetivos desde el servicio para con los padres:

- Entablar relaciones estables y continuadas con los padres
- Colaboración con los padres y acciones conjuntas
- Ayudar en la formación sobre actividades interesantes para los padres.

### **SECCION INFANTIL:**

La intención de este servicio garantizar la oferta pública para comenzar desde pequeños a trabajar la ciudadanía activa. Por ello se propone trabajar con niños y niñas de entre de 6-11 años. Estos son los objetivos de esta sección:

- Dotar de protagonismo a la persona, que cada niño o niña decida a qué o cómo quiere jugar.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan.
- Aukera berdintasuna bermatu.
- Harremanak sortu eta sendotu.
- Adinean aurrera doazen bezala ardurak handitzea.
- Jolas berriak eta jolasteko modu berriak ikasi eta eskuragarri egitea.
- Herri sentimendua landu eta handitzea.

**NERABEEN ATALA:**

Zerbitzuak abian jarri nahi ditu gizarte-hezkuntza ikuspegia eta izaera integrala duten erantzun eta proposamen konkretuak; hain zuzen ere, nerabeek baliabide pertsonalak eskura ditzaten dimentsio indibidual, sozial eta kulturalen.

Adin-tarte honetarako proposatutako helburu konkretuak honakoak dira:

- Nerabeen berdinen arteko harremanak sustatu eta haiek talde esperientziatan barneratzea, elkarbizitzan eta talde-lanean oinarrituz.
- Beraien proposamenak jaso eta erraztea.
- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea.
- Ahalbidetzea denbora betetzeko modu desberdinak, dibertigarriak, suspergarriak, partaidetzazkoak, osasungarriak eta sortzaileak.
- Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden komunitateko heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea.
- Guztion gaitan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.

**GAZTEEN ATALA**

18-30 urte bitarteko Ibarra gazteentzako ez dugu arreta zuzenerako ordu jakinik proposatzen, baina bai haien beharrei egokitutako lan-ildo zein lan-dinamika bat egonkortu eta baliabideak eskuragarri egitea. Atal honen helburuak ondorengoak dira:

- Informazio eta orientazioa: Haien beharrak asetzeko baliagarri zaien informazioa eskuratzeko orientazioa eskaintzea.
- Garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri egitea.
- Etxabeetako gazteen erreferente izaten saiatzea behar duten informazioa erraztuz eta haiek herri mailako sarean presente eginez.

- Garantizar la igualdad de oportunidades.
- Crear y fortalecer relaciones.
- Aumentar las responsabilidades conforme se avanza en la edad
- Aprender y ofrecer nuevos juegos y maneras de jugar.
- Trabajar y afianzar el sentimiento del pueblo .

**SECCION ADOLESCENTE:**

El servicio desea poner en marcha la perspectiva socio-educativa y propuestas y repuestas concretas de carácter integral, para que los adolescentes consigan medios personales en dimensiones individuales, sociales y culturales.

Estos son los objetivos propuestos para esta franja de edad:

- Promover relaciones de igualdad entre adolescentes, integrando en experiencias grupales, basandose en la convivencia y trabajo grupal
- Recibir y facilitar sus propuestas. .
- Promover y posibilitar la creación y difusión de ideas
- Posibilitar diferentes modos incentivadores y creativos de ocupar el tiempo.
- Disposición de personas adultas beneficiosas dispuestas a crear una relación positiva de influencia
- Hacerles sentir como sujetos activos que participan en asuntos que conciernen a todas..

**SECCIÓN JUVENIL**

No proponemos horario concreto para la atención directa de jóvenes de Ibarra entre 18-30 años, pero sí de directrices laborales y dinámica laboral que respondan a sus necesidades

- Información y orientación: orientarles para que adquieran la información que les resulte útil para satisfacer sus necesidades.
- Poner a su disposición los medios necesarios para llevar a cabo los proyectos que desean desarrollar.
- Intentar ser referentes de los jóvenes facilitando la información necesaria y haciendoles presente en la red a nivel municipal.
- Promover que sean agentes activos del pueblo; para que sean parte de las asociaciones, posibilitando su participación en las acciones que se desarrollen en el



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

- Herriko eragile aktibo izan daitezen sustatu; elkarleen parte izan daitezen, herriko ekintza ezberdinetan parte har dezaten ahalbidetuz edota gazte talde bezala antola daitezen sustatuz.

### **3.3.2.- Komunitatearen zati, partaide eta dinamizatzaile.**

Zerbitzuak herritar aktiboak helburu izanik harreman estua izan behar du parte den komunitatearekin. Zerbitzu honek komunitatearen parte izan nahi du, haur, nerabe eta gazteen protagonismoa ahalbidetuz eta, horretarako, lurraldeko dinamizazioan arituz.

Herri mailako sareak ezagutu, sortu eta dinamizatzea du bide zerbitzuak, erabiltzaileak komunitateko kide aktibo izan daitezen. Horretarako, honako lanak hartuko ditu beregain:

- Herriko sareak ezagutu eta elkarlana bideratu.
- Herriko gainerako talde eta eragileekin komunikazio bideak sortu eta egonkortu.
- Herriko eragileen eta haur, nerabe eta gazteen arteko ezagutza eta elkarlana ahalbidetu.
- Herriko baliabideak eta ezagutzak konpartitzeko bideak, harremanak, guneak edota espazioak sortu.

Ibarra mailan aritzeko Eragileen Batzordea dugu erreferentziatzeko gune. Herriaren egunerokoan errotuta dagoen espazio horretako kide izateak, aukerak sortu baititzake (zerbitzuaren helburuek zehaztutako norabidean) haur, nerabe eta gazteek parte hartze erreal eta aktiboa sustatzeko.

## **4. ZERBITZUAREN KUDEAKETA.**

Ibarrako Haur, Nerabe Eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak ezarritako helburuak betetzera zuzenduta egongo da.

Oro har, erakunde edo enpresa esleipendunak Ibarrako Udalak zehaztutako orientazio eta arauak beteko ditu.

municipio, o promoviendo su organización en grupos juveniles.

### **3.3.2. Parte de la comunidad, partícipe y dinamizador**

El servicio debe mantener relación estrecha con la comunidad de la que es parte, ya que tiene como objetivo los ciudadanos activos. Este servicio desea ser parte de la comunidad, posibilitando el protagonismo de niños, niñas, adolescentes y jóvenes, trabajando para ello, la dinamización territorial.

El camino es conocer, crear y dinamizar las redes municipales, a fin de que los usuarios sean miembros activos de la comunidad. Para ello deberá asumir las siguientes funciones:

- Conocer las redes municipales y encaminar la colaboración.
- Crear y afianzar vías de comunicación con los grupos y agentes del municipio.
- Posibilitar el conocimiento y colaboración entre los distintos agentes del municipio y niños y niñas, adolescentes y jóvenes.
- Crear vías, relaciones, espacios para compartir los medios y conocimientos del municipio.

Contamos en Ibarra una Comisión Operadora como punto de referencia. El ser miembro de ese espacio que está anclado en la cotidianeidad municipal puede crear oportunidades (en la dirección fijada por los objetivos del servicio) a fin de promover la participación real y activa de niños y niñas, adolescentes y jóvenes.

## **4. EN TORNO A LA GESTIÓN DEL SERVICIO**

La finalidad del servicio de participación de niños, adolescentes y jóvenes de Ibarra será cumplir con los objetivos fijados por el Departamento de Cultura y Juventud del Ayuntamiento de Ibarra.

En general, la entidad adjudicataria deberá cumplir con las orientaciones y normas definidas por el Ayuntamiento de Ibarra.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

#### **4.1. Zuzeneko arreta.**

Ibarrako Txontxo udal ludoteka da haur eta nerabeen zuzeneko arretarako toki nagusia; hala ere, beste espazio batzuetan -hala nola, kalean, lokaletan- lan egiteko dinamikak sustatuko dira, beti ere Kultura eta Gazteria sailaren zuzendaritzapean.

Gizarte hezkuntza asmo argia duen esku hartze izango da egiten diren jardunen oinarria, haur eta nerabeen molde eta estilotan arituko dena. Aurrez zehaztutako jarduera-eremuen baitan ekintza eta jarduerak antolatuko dira, eta programazioaren oinarri izango da eskarien eta beharren azterketa etengabea.

Haurren eta nerabeen parte hartzea ez da mugatuko beren interes eta nahiak adieraztera, baizik eta, mailaz maila, zerbitzuak antolatzeko fase guztietan (planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea) parte har dezaten sustatuko da. Esku hartzea jarraitua izango da, hezkuntza prozesuen jarraipena bermatuta.

Hezkuntza harremana nahitaezko tresna izango da eskaintza antolatzean, hala langileen eta erabiltzaileen artean nola erabiltzaileen artean.

Esku-hartze esparrua, funtsean, taldekakoa izango da. Berdinen arteko harremanak ahalbidetuko dira, eta zailtasun egoeran diren haur eta nerabeen parte hartzea ahalbidetuko da berdinen taldetan eta, oro har, zerbitzuetan.

Zerbitzuaren zuzeneko arretak, alde batetik, hezkuntza esparru egokitu, proaktibo eta barneratzailea izango du ardatz, profesionalek garatutako metodologia zehaztuarekin; eta, bestetik, izaera komunitariodun garapena proposatuko du.

#### **4.2. Zeharkako arreta.**

Arreta zuzeneko jarduera eta ekintzez gain, barne laneko egitekoak hauek izango dira:

##### **4.2.1. Plangintza lana eta ebaluazioa.**

Zerbitzuak, gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena izaki, planifikatutako espazioa izan behar du, Ibarra, planifikazio-sistema argi bat behar du. Aldiro berrikusiko den sistemak beti izango ditu abiapuntu haur, nerabe eta gazteen beharrak, eta horien arabera helburuak zehaztuko ditu. Horrela, esku-hartze

#### **4.1. Atención directa**

La ludoteca municipal Txontxo de Ibarra constituirá el emplazamiento principal para atender directamente a niños y niñas y adolescentes; sin embargo, se promoverán dinámicas para trabajar en otros espacios -como por ejemplo, en la calle, en locales-, siempre bajo la dirección del departamento de Cultura y Juventud.

La base de las actuaciones realizadas será intervenir para promover la educación social, en moldes y estilos acordes con niños y niñas y adolescentes. Se organizarán actuaciones y actividades en los ámbitos de actuación definidos de antemano y la base de la programación será el estudio constante de demandas y necesidades.

La participación de niños y niñas y adolescentes no se limitará a la expresión de sus intereses y deseos sino que se promoverá su participación nivel a nivel, en todas las fases de organización de los servicios (planificación, ejecución y evaluación). Será una intervención continua, garantizando la continuidad de los procesos educativos.

El vínculo educativo será fundamental a la hora de organizar, tanto entre trabajadores y usuarios como entre los propios usuarios.

El ámbito participativo, en definitiva, será colectivo. Se posibilitarán vínculos entre iguales y se posibilitará la participación de niños y niñas que vivan una situación complicada en grupos de iguales y, en general, en los servicios.

La atención directa del servicio, por un lado, tendrá como eje fundamental un ámbito educativo adaptado, proactivo e integrador, con metodología específica definida por profesionales; y, por otro, propondrá un desarrollo de carácter comunitario.

#### **4.2. Atención indirecta**

Además de la atención directa serán quehaceros de trabajo interno los siguientes:

##### **4.2.1. Planificación y evaluación.**

El servicio, como propuesta de intervención social y educativa, debe ser un espacio planificado, es decir, debe contar con un sistema de planificación claro. El punto de partida del sistema, que será revisado periódicamente, deben ser las necesidades de niños y niñas y adolescentes, y definirá sus objetivos en función de las mismas. Así, se basará en un



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

marko konpartituaren arabera etengabeko planifikazio-zikloa izango du oinarrian: Helburu, programazio, ekintza eta ebaluazio jarraitua. Horiek guztiak haur eta nerabeen parte hartzearekin garatuko dira.

Planifikaziotik eratorritako programazioetan bermatu beharko da pertsonen eta komunitatearen definitutako beharrei erantzutea. Halaber, aldi berean, aipatutako zehar lerroei erantzun beharko zaie (euskara, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna, eta integrazioa) eta aurrera eramango diren ekintzek jarduera-eremuetan tokia izan beharko dute.

Planifikazioak, helburuez gain, Zerbitzuak garaturiko jarduerak jasoko ditu bere baitan (zuzeneko arreta, programazioak, barruko lanak...). Arreta berezia eskainiko zaio jarduerak behar bezala egituratzeari eta plangintza lanean eta erabakiak hartzeko garaian parte hartzeko aukera eskaintzeari. Urteko edo/eta ikasturteko plangintzak eta berariazko egitarauak egingo dira (gutxienez hiru hilean behingoak), denborak aurreikusiz zuzeneko arretarako eta baita kudeaketa jarduerarako ere. Horretaz gain, proiektu espezifikoek euren planifikazio zehatzak izan beharko dituzte.

Ebaluazioa zerbitzuari eta horren ingurukoari buruzko informazio lortu eta lantzeko egiten den guztia jasotzen duen prozesua da, eta horren xedea; jarduera aldi berri bati aurre egin ahal izateko behar beste azalpen, analisi eta balorazio eskuratzea. Erabiltzaileen partaidetza ezinbestekoa izango da Zerbitzuaren ebaluaketa behar bezala egiteko. Gutxien gutxienean alderdi hauek aztertuko ditu: Behar eta baliabideak, jarduerak eta eragina. Hala kuantitatiboki nola kualitatiboki ere.

Zerbitzuaren ebaluaketak hartzaile edo erabiltzaileen asetasun maila neurtuko du ere, eta maila hori hobetzeko baliabide eta jardunbideak proposatuko ditu. Urtean zehar ondorengo produktuak aurkeztu beharko dira:

- Zerbitzuaren urteko planifikazioa.
- Hiruhileko jarraipen txostenak eta hurrengo hiruhilabeteko planifikazioa
- Urteko memoria.

ciclo planificador continuo conforme a un marco de actuación compartido: objetivos, programación, actuación y evaluación continuos. Todos ellos, desarrollados con la participación de niños y niñas y adolescentes.

Las programaciones derivadas de la planificación deberán garantizar la satisfacción de las necesidades de personas y comunidad detectadas. Asimismo, deberá dar respuesta a las cuestiones transversales mencionadas anteriormente (euskera, igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, integración e igualdad), que deberán tener su lugar en las actuaciones llevadas a cabo.

La planificación, además de los objetivos, incluirá las actividades llevadas a cabo por el servicio (atención directa, programaciones, trabajo interno, etc.). Se pondrá un énfasis especial en la definición adecuada de las actividades y en ofrecer la posibilidad de participar en el proceso de planificación y en la toma de decisiones. Se llevarán a cabo planes anuales y programas específicos (al menos una vez por trimestre), previendo tiempo para la atención directa así como para las actividades de gestión. Además, los proyectos específicos deberán tener su propia planificación.

La evaluación es el proceso en el que se recaba información en torno al servicio y a todo lo que le rodea y a todas las actividades realizadas por el mismo, su objetivo es recabar todas las explicaciones, análisis y valoraciones necesarias para afrontar un nuevo período de actividad. La participación de los adolescentes será fundamental para realizar una evaluación exhaustiva del servicio. Analizará, como mínimo, los siguientes factores: necesidades y recursos, actividades e incidencia. Tanto cuantitativa como cualitativamente.

La evaluación del servicio medirá también el grado de satisfacción de destinatarios y usuarios, y propondrá recursos y actuaciones para aumentar dicha satisfacción. Será necesario presentar los siguientes productos a lo largo del año:

- Planificación anual de servicio.
- Informes de seguimiento trimestral y planificación del siguiente trimestre.
- Memoria anual.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

#### **4.2.2. Koordinazio lana.**

Koordinazioa funtsezko zeregina da haurrak eta nerabeak sustatzeko zerbitzuetan. Haur eta nerabeen behar eta interesak ugari eta askotarikoak direnez, arlo eta eragile guztiekin batera lan egin beharko da, horiei erantzutearren.

Zerbitzuko lantaldeak haur, nerabe eta gazteen ardura duten beste heldu eta profesionalekin osatu beharreko koordinazio-sistema osatuko du batetik, eta, bestetik, parte hartuko du Udal eta lurralde mailako koordinazio guneetan.

#### *Udal eta herriko eragileekin osatu beharreko koordinazio sistema:*

1.- *Kale hezitzaileekin:* Zailtasun egoeran dauden haur eta nerabeak identifikatzeko, horiekin egingo den esku-hartzea adosteko eta bi zerbitzuetatik ikuspegi berdinetik lan egiteko. Horretarako behar diren proiektu komunak bideratuko dira.

2.- *Ikastola:* Era berean, haur eta nerabe (bakar/talde) jakin baten jarraipena egiteko. Planifikazioa bateratu eta elkarlanerako bideak zabaltzeko.

3.- *Euskara eta Hezkuntza:* Zerbitzuan egindako hizkuntza behaketaren berri eman eta esku-hartzerik behar den aztertzeke; eta ikasturteko asmoen berri emateko.

4.- *Guraso elkarteak:* Zerbitzuen helburuen berri izateko, haien beharrak ezagutzeko eta nerabezaroa ulertarazteko. Ikasturteko asmoen berri emateko eta zerbitzuaren martxaren berri emateko.

5.- *Aisialdi Taldea:* Aisialdi taldearekin ere koordinazio jarraitua mantendu beharko litzateke, haurrekin eta nerabeekin lanean aritzen den eragilea baita. Kasu honetan, gazte-elkarte moduan baino, haur eta nerabeen arretan aritzen den talde moduan egin beharko litzateke koordinazioa.

#### *Udal mailan eta Gaztematikan izan beharreko parte hartze edota koordinazio guneak:*

1.- Ibarra Udal mailako Gazteria Foro Teknikoa: Urtean hirutan bilduko da, Sailaren urteko kudeaketa planaren berri eman, jarraipena egin eta ebaluazioa

#### **4.2.2. Labor de coordinación**

La coordinación es una función fundamental en los servicios de atención a la infancia y la juventud. Como las necesidades e intereses de niños y niñas y adolescentes son muchos y muy diversos, habrá que trabajar con todos los ámbitos y agentes para poderles dar respuesta.

Por un lado, el grupo de trabajo del servicio implantará los pormenores del sistema de coordinación con profesionales y adultos responsables sobre niños y adolescentes; por otro lado, participará en el ámbito municipal y en el territorial

#### *Sistema de coordinación que es necesario implantar con agentes municipales y del ayuntamiento:*

1.- *Con educadores de calle:* para identificar a niños y niñas y adolescentes en situación difícil para acordar la intervención conjunta y trabajar con el mismo punto de vista desde ambos servicios. Para ello se encaminarán proyectos comunes.

2.- *Ikastola:* para el seguimiento de niño o adolescente concreto (único/grupo), Para realizar una planificación conjunta y abrir caminos de trabajo en colaboración.

3. *Euskara y educación:* Dar cuenta de la observación del idioma en el servicio y analizar la necesidad de intervención, dando a conocer los planes del curso.

4. *Asociación de padres:* para tener conocimiento de los objetivos del servicio, conocer sus necesidades y comprender la adolescencia. Dar a conocer los planes del curso y la puesta en marcha del servicio.

5. *Grupo de tiempo libre:* Se debería mantener una coordinación continua con el grupo de ocio, ya que se trata de un agente que trabaja con niños y adolescentes. La coordinación se debería entender como grupo que trabaja en atención a niños y adolescentes más que como grupo de jóvenes.

#### *Espacios de participación y coordinación necesarios en el ámbito municipal y en Gaztematika:*

1.- Foro Técnico de Juventud del Ayuntamiento de Ibarra: Se reunirá tres veces al año para informar del plan de gestión anual del departamento, hacer su seguimiento y evaluación. Integrantes: Educador del servicio, responsables técnicos y



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

egiteko. Bertan hartuko dute parte: Zerbitzuko hezitzaile, teknikari eta zinegotzi arduradunek, eta kale hezitzaileek.

2.- Gazteria batzordea.

3.- Lurralde mailako hezitzaileen foroan: Zerbitzuko hezitzaileek

#### **4.2.2. Zerbitzuaren zabalkundea**

Enpresa edo elkarte esleituaren ardura izango da zerbitzuaren berri herrian eman eta zabaltzeaz, beti ere, Udalaren irizpideak jarraituz eta Gazteria eta Kultura, zein, Hezkuntza eta Euskara sailen onespenerekin.

#### **4.2.3. Etengabeko prestakuntza**

